



Badator Korrika!

Euskararen aldeko lasterketa erradoiak apirilaren 1eko goizaldean bisitatuko du Durangaldea. Nagiak kenduta, milaka euskaltzale batuko dira Korrikaren jaira • **13-24**



Babesa nasatarrei

Durango • Nasa hizkuntza komunitateko ordezkarri bi Durangon izan dira. Hizkuntza eta kultura biziberritzeko formakuntza saioak jasotzera etorri dira Euskal Herrira. Udalak 2013an ekin zion nasatarrei laguntzeari. • **4**



Durangoko duatloiak bizikletako ibilbidea estreinatuko du

Durango • Durangoko duatloiak 14. aldia beteko du domekan. Bizikletako tartea berria izango dela da aurtengo nobedade nagusia. • **28**

"Aita desobiratu zutenean amak ezagutu egin zuen, gorbatagaitik eta zapatengaitik"

Durango • Martxoaren 31ko oroimen ekitaldian, bonbardaketako biktima guztiak oroituko dituzte. Aurtten, hilerriko hobi komunean lurperatutakoei eta haien familiei egingo diete aitortza. Familia horien artean, Edita Gómez Pereirarena dago. Arturo Gómez zen bere aita, eta bonbardaketan hil zuten. Gogoan du amagaz hilerria joaten zela aitari loreak ipintzera. • **2-3**



"Lurperatu eta hamar urtera aita lurreko hobitik atera zuten. Amak ezagutu egin zuen, gorbatagaitik eta zapatengaitik"

Edita Gomezek ondo gogoratzen du bonbardaketa ostean aita non lurperatu zuten. Amagaz bertara joaten zen loreak eraman eta errezatzer



DURANGO • JONE GUENETXEA

Edita Gómez Pereiraren (Durango, 1932) testigantza garrantzitsua izan da Durangoko hilerriko hobi komunen ikerketan. Bere aita, Arturo Gómez, 'kinkilleroa' zen eta bonbardaketan hil zuten, merkatuan saltzen zebilela. Concha Pereira emazteak jarraitu zuen haren lanagaz, saltzen eta erosten, herririk herri, baserri batetik bestera. Gerraosteko testuinguru zailan, alargun, bost seme-alaba atera zituen aurrera. Editak, Juan Carlos Uriarte Gómez semearen laguntzagaz, familiaren historiari buruzko galderei erantzun die.

Edita, nortzuk izan ziren zure gurasoak?

Edita Gómez: Arturo Gómez zen gure aita, eta Concha Pereira ama. Biak Ourensen jaio ziren. Sei neba-arreba ginen. Mari Carmen, Edita, Arturo, José, Angelines eta Antonio. Gurasoak bizimodua ateratzera etorri ziren Durangora. Gure aita saltzailea zen. Hariak, karterak... denerik saltzen zuen. Zilarra eta urrea ere bai. Galiziarrek 'kinkalla' esaten zioten horri. **Juan Carlos Uriarte:** Esaten dutenez, Galiziatik Durangora zaldian etorri ziren, apurka-apurka. Antza denez, gurdi moduko bat zuten eta hantxe saltzen zuten jeneroa. Herririk herri ibiltzen ziren. Kantabriara heldu ziren eta Arturo semea hantxe jaio zen. Gero, lehenengo semea jaiota Durangora etorri ziren, Artekalera.

E.G.: Zaldia eta gurdia hartu, eta aita saltzera eta erostera joaten zen, egun batzuetarako. Etortzen zen bakoitzean amari umea egiten zion [barrez]. Oso negoziantea zen. Mancisidor erlojugilearen lagun handia zen. **Edita, aita bonbardaketan hil zuten. Zer kontatu dizute egun hartaz?**

E.G.: Andra Marian hil zuten, bonbardaketan. Bihotzak eztanda egin zion. Antza denez, hildakoak ilaran ipini zituzten. Sirena entzun zuenean, amak arineketan irten zuen etxetik. Artekalean bizi ginen. Aita hantxe ikusi zuen eta besarkatzera joan zen, negar batean. Lagun batek kontatu zidan hori. "Ikusten zaitudan bakoitzean zuen amagaz gogoratzen naiz", esaten zidan lagunak. "Zuen aita besarkatzean zelan negar egiten zuen", esaten zidan.

Amak ikusi egin zuen zuen aita bonbardaketaren ondoren, baina bazekien hilerriko hobi komunean lurperatu zutela?

E.G.: Bai, amak bazekien aita hilerrian lurperatu zutela, errezatzer bertara joaten ginen eta. San Bizente ingurua esaten dioten lekura joaten ginen amagaz.

Bonbardaketaren zein oroitzapen duzu zuk?

E.G.: Lau edo bost urte nituen. Hegazkinen zarata dut gogoan. Auzokide batzuek hartzen gintuzten eta udaletxe ondoko babeslekura eramaten gintuzten.

Zer gertatu zen bonbardaketaren ondoren?

E.G.: Artekaleko eraikinak eraitsita zeudenez, eta amak aitaren merkantzia zuenez, lan horretan jardutea erabaki zuen. Gure auzokideak ziren Antonio eta Antonia bikoteagaz Santaderrera joan ginen. Ama ere bai. Kontuan izan behar da ama haurdun zegoela. Umea, mutikoa, Cabezón de la Sal herrian jaio zen. Amak Antonio izena ipini zion, gure auzokide Antonio eta Antonia izan zirelako umetxoaren aita puntako eta amapuntakoak. Baina umea hil egin zen.

Conchak zer egin zuen orduan?

J.C.G.: Concharen aita etorri zen, umeak eta Concha Galiziara eramateko. Baina Conchak ez zuen Galiziara joan gura eta ezezkoa eman zion. Laguntzea gura izanez gero, ahizpa gaztea Galiziatik ekartzeko esan zion aitari, bera saltzen zebilen bitartean ahizpak umeak zaindu zitza. Horrela, denbora batera, ahizpa gazteagaz Durangora bueltatu ziren.

E.G.: Durangora bueltan, neba-arrebok Carmeliten eskolan ikasten hasi ginen, Kurutziaigan. 16 urtera arte-edo ikasi nuen.

Zelan atera zuten aita hobi komunitik?

E.G.: Guk ez dugu izan hobi komun berririk. Hamar urtera, lurreko hobitik atera zuten. 1947an atera zutela esan zuen gure anaiak. Amak ezagutu egin zuen, gorbatagaitik eta zapatengaitik. Amak familiaren panteoia erosi zuen eta bertan sartu genuen.

Hilerrira joaten zineten aitari loreak ipintzera.

E.G.: Loreak eramatera joaten ginen lurreko hobi batera, eta geroago panteoira.

J.C.G.: Osabak ere bazekien hobi komuna non zegoen, eta amaren leku bera aipatzen du. Esaten dute atera zuten lekuan bera bakarrik zegoela. Beraz, sentsazioa dut hobi komun bat barik enterramendu indibidualak izan zirela. Osabak dioe-

nez, aiteitaren hobian zementuzko plaka bat zegoen eta katetxo beltz batez hesituta zegoen.

Edita, ama adoretsua izan zenuen.

E.G.: Adoretsua zen, bai. Bost seme-alaba izanda, gogor lan egin zuen bizitza osoan.

J.C.G.: Inguruko baserrietara joaten zen jeneroa saltzera. Mundu guztiak ezagutzen zuen eta oso maitatua zen.

Neba-arrebak Eibarren lanean hasi zineten eta ama ere bertara joan zen bizitzera.

J.C.G.: Bai, eta sasoi hartako anekdota berezi bat kontatzen zigun. Bidebarrietan, poliziak bizi ziren etxe batzuk zeuden. Pisu bat alokairuan hartu zion polizia bati. Handik denbora batera, bota egin gura zuten bertatik, eta Conchak pisua erosi egin gura zuen. Sasoi hartan, Galiziatik Benito Rodríguez izeneko gizon bat etorri zen, apopilo. Pisua erosteko zer egin pentsatzen hasi zen Concha. Benito ere saleroslea zenez, pisua elkarregaz erostea proposatu zion. Conchak Madrilera joatea erabaki zuen, familiakoa zen Cesareo González zine ekoizleari laguntza eskatzera. Audientzia eskatu zion Madrilan, eta pisua erosten laguntzeko esan zion. Cesareok lagundu egingo ziola esan zion. Gero, Concha Benitogaz ezkondu zen eta Benito izan zen nire amarentzat aita, eta guretzat aitita. Hala ere, amamak beti esaten zuen Arturo izan zela. bere bizitzako maitea. Hori Benitoren aurrean ere esaten zuen. Concha 2002an hil zen.



Arturo Gómez eta Concha Pereira.

Martxoak 31

Egitaraua

Martxoaren 1etik aurrera

'85 urte, 85 jakingarri'. Gerediaga elkarteak bonbardaketari loturiko informazioa aletuko du egitasmo honegaz. Bihartik hasita, egun bakoitzean gertakari bat aletuko dute. Bonbardaketaren testuingururako bidaia bat proposatuko dute, argazkiekin eta testuekin orduko gai sozialak eta gai politikoak gogora ekartzeko. Jakin-garriok ANBOTOn bitartez jarraitu ahalko dira egun bakoitzean.

Martxoaren 30ean

19:00 'Durango, 1937ko Martxoaren 31, bonbardaketa' liburuaren aurkezpena. Jon Irazabalek bonbardaketari loturiko "liburuxka trinko bat" kale-ratuko du laster. "Martxoaren 31ri

buruzko informazio osatua eskainiko du liburuak, azken urteotan jakin direnekin eta ikertu direnekin", aurreratu du Beñat Gaztelurrutia elkarteko presidenteak. Aurkezpena Kurutzesantun egingo dute.

Martxoaren 31n

8:30. Lehenengo aire erasoaren alarma-hotsa, Andra Mariko kanpandorean.

'Bonbardaketaren aztarnak' bi-deoa, Andra Mariko kaperan.
9:30 - 12:30 Bonbardaketa oroitzeko tailer parte hartzailea herriko ikas-tetxeekin. 180 bat ikasle batzea aurreikusi dute. Andra Mariko elizpean egingo dute.

10:00 - 19:00 Biktimen omenezko sua piztuta egongo da Andra Mariko elizpean.

17:45 Bigarren aire erasoaren alarma-hotsa Andra Mariko kanpandorean.

19:30 Bonbardaketan hildakoei oroimen ekitaldia. Lore eskaintza. Gerediaga elkarteak eta Kriskitin dantza taldeak egingo dute ekitaldia. Karolina Suarez kazetariak dinamizatu-tuko du.

Apirilaren 2an

17:00 Berbaldia: Faxismoa 2022. urtean. Antolatzailea: Ernai. Lekua: Bartolome Ertzilla musika eskolako aretoa.

Apirilaren 7an

19:00 'Apaiz kartzela' filma proiektatuko dute Zugaza zineman. Dokumentalaren ostean mahai-ingurua egingo dute Xabier Amurizak, Jose Felix Azurmendik eta Juan Mari Arregik.

Apirilaren 28an

19:00 'Frankismoaren hasiera gogoratu' kultur ikuskizuna. Iurretako eta Durangoko gazteek musika, dantza

eta antzerkia oinarri izango dituen errepresentazioa egingo dute udalerrri bien arteko zubian, Montoian.

Maiatzaren 12an

19:00 'Durango, oroimenaren gogoan' dokumentalaren proiektzioa Zugaza zineman. Juanjo López zuzendaria-riak parte hartuko du bertan.

Irailaren 21ean

19:00 Berbaldia: '1936ko irailaren 25ean eta ondorengo egunetan gertatutakoak'. Gerediaga elkarteak eta Durango 1936 elkarteak eskai-niko dute. San Agustin kulturgunean izango da.

Irailaren 25ean

12:00 Oroimen ekitaldia. 1936ko irailaren 25eko gertakarien ondorioz hil ziren guztien aitortza. Antolatzaileak: Gerediaga elkar-tea eta Durango 1936 elkar-tea. Lekua: Ezkurdi plaza.



"Nasatarron jatorriari begiratzen hastea amets handi baten abiapuntua izan da"

Nasa hizkuntza komunitateko ordezkari bi Durangon egon dira. Haien hizkuntza eta kultura berreskuratzeko lana zelakoa izaten ari den partekatu dute udal agintariekin

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Kolonbiatik etorri dira, Cauca eskualdearen ipar partetik, Toribio izeneko herritik. Garabide gobernu kanpoko erakundearen eskutik etorri dira Euskal Herrira, euren hizkuntza eta kultura biziberritzeko formakuntza saioak jasotzera. Eta, bide horretan, geldialdi bat, bisita txiki bat durangarrei, Durangoko Udala nasa komunitatea biziberritzeko proiektua laguntzen hasi zelako, 2013an. Kolonbiako nasa komunitateak orain hamarkada batzuk ekin zion bere hizkuntza eta kultura biziberritzeko lanari. Bidea "amets handi bat" izaten ari dela esan dute handik etorritako kideek. "Gure jatorriari begiratzen hastea amets handi bat hastea da", gaineratu dute. Herrialdea bizibere

rritzeko lan hori hainbat planotan egiten dabilta. Batetik, hizkuntza berreskuratzeari dagokion arloan, "nasa hizkuntza ahozotasunean oinarrituta egon delako orain arte". Bestetik, kultura berreskuratzeari

Caucako indarkeria giroaren aurrean, euren ekintzak kulturalak direla berretsi dute nasatarrek

dagokion arloa dago, haien nortasuna "indartu" gura dutelako "autonomia bat izango duen komunitate modura". Azkenik, emakumeak ahalduntzeko tresnetatik ere ikasi gura dute, "orain arte emakumeek

ez dutelako espazio propiorik izan bere horretan". "Ahalduntzen gabiltza, gure hizkuntza gure familietan sartzeko, gure umeei lantzeko", esan dute nasa komunitateko kideek. Garabidek eskaintako formakuntza saioetan, nasatarrek eta mundu osotik ailegatutako beste 23 herritako edo hizkuntza minorizatuak kideak daude.

Andoni Barreña durangarra nasa hizkuntza berreskuratzeko proiektuan sartuta dabil. Dioenez, nasatarrek Kolonbiako bigarren komunitate indigena dira herritar kopuruari dagokionez. "400.000 nasatar dago eta erdiak gutxi gorabehera nasatarrez mintzo dira. Haien luraren azalera Euskal Herria baino zabalagoa da, eta, dialektoei dagokienez, euskaldunok



Nasa komunitateko kideak udal agintariekin eta Garabideko kideekin.

baino errazago ulertzen dute elkar. Ez dago gramatika pedagogikorik. Metodologia eta liburu gutxi dago. Esaldien egitura euskararen antzekoa da", azaldu du Barreña. Dena dela, nasa komunitateak zailtasunak ere baditu. Indarkeriaz

beteriko egoera bizi dute. Herrialdeko lider indigena ugari erail dute azkenaldian. Horren aurrean, nasa komunitateko kideek hizkuntza indarberritzeko lanean jarraituko dutela berretsi dute. "Gurea kulturaren aldeko ekintza da", diote.

3,2 milioiko inbertsioa eginda, Durangoko Udalak Urki-Hegoalde saihasbidea amaituko du

Gobernu taldeak idatzita dauka proiektua eta martxoko osoko bilkuran onartzea gura du, gero lanak lizitaziora ateratzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak diru partida bat onartzea aurreikusi du Urki-Hegoalde saihasbidea amaitzeko. Hile amaiera honetako osoko bilkuran 3,2 milioi euro ipiniko ditu azpiegitura hori amaitzeko. Proiektua idatzita dago eta behin osoko bilkuran onartuta, udalak izapideak hasi gura ditu obrak lizitatzeko. Azpiegitura horri eskerrak ibilgailuek Eguzkitzako industrialdetik N-623 errepidera irtengo dute, herrigunetik pasatu barik. Hau da, Tabira aldetik Ona lantegia dagoen biribilgunera irtengo dute, zuzenean. Proiektua 2010ean sortu zen, baina amaitu barik dago oraindik. Orain, aurrekontu partida horregaz, udalak behin betiko amaitu gura du saihasbidea.

Udal agintarien berbetan, herrian gertatzen diren trafiko pilaketarik handienak Abadiñoko sarreran egoten dira, Gernikako Arbola plazako biribilgunean (Er-

tzaintzaren komisaria aurrean). Puntu horretan, erdigunera sartu gura duten autoak eta Izurtzarako bidea hartu gura dutenak nahasten dira. Obra honegaz, udalak batetik

bestera denbora murriztea gura du, ibilgailuak herri erditik pasatzea saihesteko. Saihasbideak Eguzkitzako industrialdea garatzen lagunduko duela dio udalak.



Urki-Hegoalde saihasbidea 2010ean hasi ziren eraikitzen, baina amaitu barik dago oraindik.

Udaltzainen askatasun sindikala "urratu" dela ebatzi du auzitegiak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

ELAk jakinarazi duenez, Bilboko auzitegi batek arrazoia eman dio sindikatuari, iazko ez-jaietan Durangoko udaltzaingoak egin zituen errefortzu txandak direla eta. Iazko San Fausto jaietako datetan, Durangoko Udalaren eskariz, udaltzaingoak lanaldiak indartu zituen kalean eta tabernetan egon zitezkeen osasun arau-haustek saihesteko. Txanda haiek "inposizioa" zirela kritikatu zuen ELAk, eta salaketa ipini zuen auzitegian. Orain, auzitegiak arrazoia eman dio ELAri, "askatasun sindikalari loturiko oinarriko eskubideak urratu" zirelako, "negozioazio kolektiboari dagokion eskubidean".

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko martxoaren 25a
20. urtea - 887. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

2015 **Bikam**
Eusko Jaurlaritzaren
Kulturaren eta Hizkuntza
Politikaren saila

PEFC
Produktu hau
kontsumatzen
duzunean, erabaki
egoki dago. Irizpideak
da eta Bako Kudeaketa
Sistemaren
zuzentzailea da.
www.pefc.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Epifanio Osoro durangar anarkista Ezkabako desobiratuen artean egon daitekeela uste du Durango 1936k

Aranzadik San Kristobal gotorlekuko 17 presoren gorpuzkiak desobiratu ditu asteen

DURANGO • JOSEBA DERTEANO
Epifanio Osoro Ikobaltzeta Durangoko gazte anarkista bat izan zen. 1936ko azaroaren 1ean Iruñeko Ezkaba mendiko presondegian fusilatu zuten, 22 urte zituela. 1935eko maiatzean epaitu eta erruduna zelakoan, hamar urteko kartzela zigorra jaso zuen lapurreta egotzita, orduko agintari errepublikarrek ez zituzten-eta motibazio politikako ekintzailetzat onartzen anarkistak. Altxamendu faxista gertatu aurretik, 1936ko ekainean hain zuzen ere, lekuz aldatu zuten, Iruña ondoko Ezkabako presondegira, eta han preso harrapatu zuen gerrak.

1936ko azaroaren 1ean, faxistek hainbat preso anarkista fusilatu zuten, ihesaldi ahalegina leporatuta; tartean, Epifanio Osoro Ikobaltzeta. "Gaur, 2022ko martxoaren 22an,

"Ez dakigu tartean Epifanioren gorpua dagoen, baina, balego ere, gatxa izango litzateke baieztatu"

prentsan irakurri dugu Ezkaba inguruetan Aranzadik eginiko desobiratze lanetan hamazazpi

gorpu aurkitu dituztela, buruan pistola tiro bana dutenak. Antza, anarkistak izan ziren eta Ezkabako presondegian zeuden. Lurperatzerakoan, faxistek leku gutxi erabili gura ei zuten, eta horregaitik geruza bitan ipini zituzten gorpuk", azaldu du Durango 1936 kultur elkarteak. Gatxa izango da Osororen gorpua bertan dagoen argitzea. "Ez dakigu tartean Epifanioren gorpua dagoen, baina, balego ere, gatxa izango litzateke hori baieztatzea, guk dakigunagaitik ez zuen-eta ondorengorik izan, ezta bere arreba bakarrak ere", gaineratu du kultur elkarteak.



Ezkabako indusketetan aurkitutako gorpuzkiak.

Iurretako Udala Durangokoagaz batuko da airearen kalitateaz berba egiteko

Eusko Jaurlaritzaren ingurumen txostena oinarri hartuta batzartuko dira udal biak



Airearen kalitatea neurtzeko gailuetariko bat Maspe kalean ipini zuten.

IURRETA • AITZIBER BASAURI
Iurretako Udalak airearen kalitateari buruz jarduteko Durangok eskaturiko batzarra onartu du, Jaurlaritzako Ingurumen Sailak udal biei urtarrilean bidalitako txostena oinarri hartuta. Txostenean, Durangoko Udalak konputan hartu beharreko zenbait alderdi jasotzen direla gogoratu dute ohar batean. Hau da, Jaurlaritzak konpromisoa hartu duela Durangoko enpresa batean sorturiko "arazo puntuala" konpontzeko. Gaineratu du Durangok airearen kalitateari buruz lor ditzakeen ondorioak "datu zientifiko abalatu eta adierazgarrietan" oinarritu behar dituela. Iurretak dio Jaurlaritzagaz lanean jarraituko duela, eta udalen arteko lankidetzat "premiazkoa" dela.

Durangaldean okupazio bulego bat sortzeko dinamika, martxan

Eskualdeko lagun talde batek hasi du dinamika, Bilboko okupazio bulegoaren antzeko tresna sortzeko bertan

DURANGO • EKAITZ HERRERA
"Hedabideek okupazio mugimendua kriminalizatzeari uzten ez diotela ikusirik" eta "etxebizitzaren egungo egoera kritikoa" ikusita, Durangaldeko hainbat lagunek okupazio bulego bat sortzeko asmoa agertu dute. Okupazio gaiei buruzko aholkularitza eta informazioa eskainiko dituen zerbitzu bat sortzea da euren helburua, Bilbon dagoenaren antzeko bulego bat. Egitasmoaren bultzatzaileek diotenez, Durangaldean okupazioari loturiko hainbat kasu egon da azken boladan. "Baina Bilboko okupazio bulegoa gainezka dagoenez, zerbitzu hori Durangaldean sortzea pentsatu dugu", azaldu dute dinamikaren bultzatzaileek. Oraingoan, formakuntza saioak

hartzen dabilta. Abokatuekin hartu-emanetan daude eta uda bueltan zabalduko dute bulegoa; Durangaldeko gaztetxeren batean, ahal dela.

Zapatuan, 12:30etan, kontzentrazioa egingo dute Andra Marian; gero, kontzertuak Sorginolan

Oraingoan, zapatuan jardunaldi sorta bat egingo dute Durangon. 12:30ean kontzentrazioa egingo dute, Andra Marian. Gero, Sorginolara kalejiran joan eta han bazkaria eta kontzertuak egingo dituzte.

DBH - BATXILERGOA

- Orokorra

- Arteak:

Arte plastikoak, irudia eta diseinua

Musika eta arte eszenikoak

- Zientziak eta teknologia

- Giza eta gizarte zientziak

GELA EGONKORRA ETA ZEREGIN IKASTEKO GELAK

INSTITUTUA

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA-DURANGO

BATXILERGORAKO AURREMATRIKULAZIO EPEA:

MARTXOAREN 28tik APIRILAREN 8ra arte.

HEZIKETA ZIKLOAK

• ERDI-MAILAKO ZIKLOA:

- Natura Inguruneke gidari lanetako eta aisialdiko teknikaria

• GOI-MAILAKO ZIKLOA:

- Gizarte eta Kirol Irakaskuntzako eta Animazioko Goi-Mailako Teknikaria

Otxandioko Udalak erosketa bonuak zozkatuko ditu herriko komertzioetan erosten dutenen artean

Apiriletik aurrera, urtebetez, 100 euroko 10 sari banatuko ditu hilero 'Poltsa bete Otxandion' kanpainaren barruan

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko Udalak eta herriko dendariek erosketak Otxandion egitea sustatuko duen kanpaina adostu dute, eta apirilean hasiko da. 'Poltsa bete Otxandion' izenagaz, kanpaina honetan datza: udalak erosketa bonuak zozkatuko ditu kanpainara atxikitutako herriko komertzioetan erosketak egiten dituzten herritarren artean.

Kanpainak urtebete iraungo du, aurtengo apiriletik 2023ko apirilerara arte. Udalak 12.000 euro ipiniko ditu ekimenerako. Horrela, hilero 1.000 euro banatuko ditu saritan, 100 euroko 10 sari, hain zuzen ere. Bonuak herriko komertzioetan erabili beharko dira eta hilabeteko iraungitze-data izango dute. Adin nagusikoak diren erosle guztiek parte hartu dezakete kanpainan.

Funtzionamendua

Kanpaina barruko komertzioetan erosketa bat egiten duenari gastatzen duen zenbatekoaren araberrako errifa kopurua emango zaio. Errifan norberaren izen-abizenak



Kanpainara atxikitutako komertzioetan banatuko dituzte errifak.

eta telefono zenbakia idatzi eta herriko dendetan edo udaletxeko atarteko postontzian utzi behar dira.

Zozketak hileko lehenengo lane-gunean egingo dituzte. Gero, udal langileak irabazleekin hartu-emanetan ipiniko dira bonuak haiei helarazteko.

Komertzioetan erosten duenak gastatzen duen zenbatekoaren araberrako errifa kopurua jasoko du

Dinamika hau Otxandioko Udalak hamarkada honetarako bultzaturiko Biziguraz Betie plan estrategikoaren barruan dago, eta honen bitartez hainbat helburu bete gura dituzte: tokiko komertzioaren balioa nabarmentzea, erosle belaunaldi berriak erakartzea eta bezeroarekiko gertutasuna eta arreta pertsonalizatua indartzea, besteak beste.

Familia giroko komunikazioan euskara sustatzeko ekimena Mallabian

MALLABIA • J.D.

Urtxintxa eskolak, AEKgaz batera, 'Familian euskaraz jolasean' izeneko tailerra antolatu du martxoaren 31rako Mallabian. Gurasoen eta seme-alaben arteko hizkuntza ohitura euskaraz izatera bultzatu gura dute egitasmo honen bitartez.

3tik 8 urtera arteko haurrak dituzten familiei zuzenduriko ekimena da. Saioen metodologia dinamikoa izango da eta umeei eta helduek elkarregaz jolastuz ikasiko dituzte olgetak. Jolasak eta abestiak Urtxintxa Eskolako hezitzaileek irakatsiko dizkiete.

Ekimenean parte hartzeko izen-ematea eskolako idazkaritzan eta ermua_berba@aeik.eus helbidean egin daiteke.

Mañariko udalekuean martxoaren 31ra arte eman daiteke izena

MAÑARIA • J.D.

Mañariko Andra Mari guraso elkarteak udalekuak antolatuko ditu ekainerako eta uztailerako. Lau urtetik gorako umeei zuzenduta daude. Lau data presatatu dituzte: ekainaren 27tik uztailaren 1era, uztailaren 4tik 8ra, uztailaren 11tik 15era eta uztailaren 18tik 22ra. Askotariko ekintzak antolatuko dituzte, hala nola hondartzarako eta mendirako irteerak, jolasak, sukaldaritza tailerrak eta antzerki saioak.

Andra Mari elkarteak direnentsat 50 euro da prezioa. Mañariarrak izanda elkarteak kide ez direnentsat 60 euro da, eta mañariarrak ez direnentsat 70 euro. Izen-ematea martxoaren 31ra arte egin daiteke, biga77@gmail.com helbidean.

Izurtzan aurtengo jaietako kartel lehiaketa hasi dute

Urte biko parentesiaren ondoren, berriro ere jaiak egingo dituzte irailean; martxan da jaiak iragartzeko kartel lehiaketa

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Izurtzako Udalak berriro ere jaiak egingo ditu aurtengo irailean, eta kartel lehiaketa antolatu dute jaiok iragartzeko. Proposamenak Izurtzako udaletxean aurkeztu behar dira, maiatzaren 13a baino lehenago.

Kartelak neurri zehatz batzuk izan behar ditu eta bertako testuan honako hau agertu beharko da, nahitaez: 'Izurtzako jaiak 2022'. Horregaz batera, kartelak jaietako ezaugarriren bat jaso

eta adierazi beharko du. Erabili daitezkeen teknikei dagokienez, ez dago mugarik eta sortzaileak egokien deritzon teknika erabili ahal izango du.

Epaimahaia kultur eta jai batzordeko kideek osatuko dute eta eurek aukeraturiko irabazleak 300 euroko saria irabaziko du. Baliteke lehiaketara aurkezturiko kartelekin udalak erakusketa bat antolatzeari urtean zehar. Oinarri guztiak Izurtzako udaletxeko webgunean irakurri daitezke.



Santa Ageda ermitaren ondoan hainbat ekintza egingo dute jaietan.

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA

AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA

WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

MEKATRONIKA INDUSTRIALA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA

BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK

MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA

Lanbide Heziketa

Batxilergoa

EMAN IZENA

lea artibai
ikastetxea

94 616 90 02

info@leartik.eus

www.leartik.eus

Aforo mugatuak!

Zatoz ATE IREKIETARA

APIRILAK 2 (larunbata), 11:00



DURANGOKO BONBARDAKETAK



85. URTEURRENA
1937-2022

M31
MARTXOAK

www.durango.eus

Zornotzako EH Bilduk kiroldegi handi bat egitea eskatu du, "gabeziei" aurre egiteko

Kiroldegi berria Tantorta eta Ixer arteko arlo batean egitea proposatu du koalizioak, Lidl supermerkatuaren ondoko orube batean. Larreako kiroldegia "txiki" geratu dela diote



Larreako kiroldegia.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Udalerriko kirol zerbitzuetan "gabezia nabarmenak" daudela iritziz, Zornotzako EH Bilduk kiroldegi handi bat eraikitzea proposatu du. Eraikina Tantorta eta Ixer arteko

lursail batean egitea proposatu du, Lidl supermerkatuaren ondoan dagoen arloa aprobetxatuta. Koalizio subiranistaren berbetan, "arazoa" aspaldikoa da eta gobernu taldeari "soluzio eraginkorrik" ez ematea

leporatu dio. Zornotzako Udalak Urgozo kiroldegia eraikitzeke proiektua du esku artean. Lanak aurtan hastea da asmoa, eta datozen hiru urteetan 1.155.000 euroko inbertsioa egitea. Baina, EH Bilduren berbetan, kiroldegi berria "saskibaloitza taldeei zuzenduriko pabilioia izango da".

Larreako kiroldegia, "txiki"

Koalizio subiranistak kritikatu duen beste kontu bat da azken urteotan "dirutza gastatu" dela kirol azpiegiturretan. Adierazi du orain dozena bat urte "10 milioi euro gastatu" zirela Larreako kiroldegia eraberritzeko, eta azpiegitura "berehala" geratu zela "txiki". Eta horri guztiari gehitu dio Ixerreko kiroldegia botatzekoak direla. "Udalak 22 milioi eurotik gorako gastua egin du hamar urtean, eta orain hamar urteko arazo berdinekin segitzen dugu", kritikatu du EH Bilduk. Horregaitik, Urgozo kiroldegia eraikitzeke eta Gane eraberritzeko baliatuko den aurrekontua "kirolgune handi bat" sortzeko erabiltzea eskatu dute.

Telefonoko kableak apurtu dituzte kobrea lapurtzeko

Abadiñoko Gerediaga auzotik Garaira bitartean dagoen linean egin zuten lapurreta, orain aste bi inguru

GARAI • JONE GUENETXEA

Abadiñoko Gerediaga auzoan hasi eta Garaira bitartean dauden telefono lineako hainbat zatitan kobrea lapurtu zuten orain aste bi. Garaiko Herriko Tabernako arduradunek ANBOTOrri baieztatu diotenez, telefono linearik barik egon dira harrezkero: "Astebete baino gehiagoan linearik barik egon gara eta Telefonikak esan digu kobreaken lapurretaren

eraginez gertatu dela". Jatetxeak telefono linearik ez izatearen eragotzenak nabarmendu dituzte tabernako kideek. "Telefonorik barik egotea oztopo handia izanda, jendeak erreserbak egiteko deitzen du eta", gaineratu dute. Hala ere, deiak desbideratuta konpondu dute arazoa jatetxean. Linea horretan horrelako lapurretaren egiten duten bigarren aldia da hau.



Kablea ebakita Garaiko bidean.



BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
 Tel.: 946 816 673
 Bixente Kapanaga 19, beh.
 48215, Iurreta

Durangoko Ibaizabal Ikastolak etorkizuneko hiritar euskaldun eta jantziak hezten ditu

• **Batxilergoa:** giza- eta gizarte-zientziak eta osasun- nahiz teknologia-arloko zientziak.

• **Lanbide-heziketa:** Haur Hezkuntzako Goi-mailako Zikloa.

• **Ikastaroak eta titulu profesionalak irakaskuntza ez arautuan, doan:** sorosle izateko ikastaroak, mendekotasuna duten pertsonen gizarte-egoitzetan arreta soziosanitarioa ematekoak, hizkuntzak...

Gertuko Ikastola. Familia-giroko Ikastola txikia izateak harreman estua, komunikazio zuzena eta informazio gardena ahalbidetzen ditu, bai ikasleei, bai familiei begira.

Gertutasun hori maila akademikorara ere eramatea ezinbestekoa da. Horregatik, ikasleek errefortzuak eta orientazioa jasotzen dituzte Ibaizabal Ikastolan etapa garrantzitsu honetan: errefortzuak errepasorako edo emaitzak hobetzeko, eta orientazioa erabakiak hartzen laguntzeko (adituekin, ikasle ohiekin, bisitak, azokak, tailerrak...). Ikaslea dago Ibaizabal Ikastolaren erdigunean: ikasgaien aukeragarritasuna handitzen zaie, ebaluazio oro emaitzak hobetzeko aukera dute, Selektibitatea (USE) prestatzeko saioak ematen zaizkie, tutore pertsonal bana dute...

Berrikuntza pedagogikoa. Esperimentazioa eta sormena ere Ibaizabal Ikastolaren printzipioetan daude. Testuinguru errealean oinarritutako hezkuntza praktikoa ematen dute, konpetentzietan oinarritutako metodologiarekin. Ikasturte honetako zenbait egitasmo: "Durangoko airearen kalitatea" eta "Herrigintza auzolanean"; Ikastolarako altzarien diseinua eta fabrikazioa; animalien

disekzioa; emakume zientzialarien eta asmatzaileen ikerketa eta erakusketa; enpresa-zerbitzu bat garatzeko ideia-lehiaketa StartInnova sariketan; material- eta elikagai-bilketak GKEak laguntzeko; Eko-eragileen batzordea ekologia, berrerabilera, energia berriztagarriak eta garapen jasangarria bultzatzeko; film laburren ekoizpena IKT tresnak erabilita...

Ikasle euskaldun eleaniztunak: Oxford eta Cambridge azterketak egiteko zentro homologatua da Ibaizabal Ikastola, atzerriako ingeles-bekak dituzte, ingelesez dira zenbait ikasgai, frantsesa auakeran dute ikasleek eta nazioarteko hizkuntza-proiektutan parte hartzen dute, urtero elkartruke-programa egiten dute Iruñeko Ikastolarekin Nafarroako euskararen egoeraren berri bertatik bertara ezagutzeko, e.a. Euskara naturaltasunez bizi eta erabilaraziko dien ingurunean murgilarazten dituzte ikasleak. Ikasleak diren modukoak direla, beren gaitasunak muturrera eramatea eta norbere erritmoan aurrera eginaraztea dira helburuak Ibaizabal Ikastolan. Aniztasunak aberasten gaitu. Ibaizabal Ikastolako ikasleek puntako emaitza akademikoak eskuratzen dituzte.



Iaz %100ek gainditu zuen Selektibitatea ohiko deialdian, eta bertako ikasleek proba horretan ateratako batezbesteko nota Ikastolen batezbestekoaren gainetik eta EAeko ikastetxe guztien batezbestekoaren gainetik nabarmen geratu zen, bai ohiko deialdian, bai ezohikoan.

Emitza bikain horietan nahi-taezkoa da eskola-ingurune apropos batek eragiten duen onura. Maila berean, eremu ez formala ezinbestekoa da ibilbide akademikoa osoa izan dadin: irteerak, hitzaldiak, Irakurri-xu eskola-aldizkaria, jaialdiak, antzerki-tailerra, eztabaida- eta gogoeta-foroak eskola-orduz kanpo, auzolana, e.a. Gainera, Ikastolatan ohikoak ez diren zerbitzu osagarriak daude bateratuta Ibaizabal Ikastolaren egiturari: kafe-tegia, ostatua, gimnasioa (muskulazio-gela, kirol-ikastaroak...), aparkaleku pribatua, jantokia eta garraio-zerbitzua Durangotik kanpokoentzat.

Ikasleen eta familien esanari entzun besterik ez dago Ibaizabal Ikastolarekin pozik daudela ondorioztatzeko. Zatoz gurekin, zatoz gurera!



2022/2023 ikasturtean Ibaizabal Ikastolaren komunitatearen parte izan nahi baduzu:
https://www.ibaizabalikastola.eus/eu/matrikulazioa_hasiera

Apirilaren 8a baino lehenago egin beharra dago aurrematrikula Batxilergoan.

Martxoaren 28an Batxilergoko ate irekiak familientzat, 17:30 eta 18:15.

Martxoaren 29an Batxilergoko bilera informatiboa + ate irekiak familientzat, 18:00.

Goi-mailako Zikloa Haur Hezkuntzan. Bisita gidatu pertsonalizatuak maiatzean. Matrikula-garaia aurrerago jakinaraziko da.

Argibideetarako:

IBAIZABAL IKASTOLA

Intxaurrondo kalea 54

48200 Durango (Bizkaia)

Tel: 94 621 58 77

idazkaritza@ibaizabalikastola.eus

Esteban Agirre abadiñarrak Ukrainako bost errefuxiatu ekarri ditu bere furgonetan, bikote bat eta familia bat

Bilboko beste hainbat lagunekin antolatu zuen bidaia. Dozena bat furgonetatan 40 bat ukrainar ekarri dituzte

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Proposamena jasotakoan ez zuen zalantzarik izan. Furgoneta hartu, Ukrainako mugara joan, errefuxiatuak hartu, eta ekarri. Esteban Agirre abadiñarrak ekintza solidario hori egin du Bilbon dituen hainbat lagunekin batera. Dozena bat furgoneta antolatuta, gerratik ihes egiten dabilzan ukrainarren

bila joan ziren joan zen astean. "40 pertsonatik gora ekarri ditugu gutxi gorabehera. Nire furgonetan neska-mutil bikote bat eta familia bat ekarri genituen. Amama, ama eta iloba. Azken hauen familiako aita Ukrainan geratu da. Bere ama zaintzen eta gerrako frontean. Eta familia horretako seme nagusia ere bai. Barea ez zen beste herri

batean zegoen. Ama haustuta zegoen", azaldu du Agirrek. "Guk ekarri ditugun ukrainarrek kontakturen bat dute hemen. Batzuek Baionan eta Zumaian. Beste hainbatek Bilbon. Batzuk Galiziara, Madrilera eta Santanderrera eraman ditugu", gaineratu du.

Gerraren aurpegirik beltzenaren aurrean, Agirrek bere begien aurrean ikusitako elkartasun keinuak goraipatu ditu: "Gogoan dut Bilbora ailegatuta, gure furgonetako neskak egindakoa. Ez zuten ezer aldean. Makutotxo txiki bat bakarrik. Eta neskak Ukrainako txokolate tableta bat eskaini zidan, esker onez. Hori egundakoa da. Ezer eduki ez, eta, hala ere, zeozer eskaintzen didazu. Ez dago berbarik hori azaltzeko. Horrelako keinuak ondo gordeko ditut neure barruan", dio Agirrek.



Esteban Agirre.

Aginte Planeko jarduketaren %74 eginda dago edo egiten dabilta Abadiñon

Mikel Garaizabalek eta Javier Crespok prentsurrekoa egin zuten Aginte Planaren berri emateko

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen astean, Abadiñon prentsurrekoa egin zuten 2020-2023 Agintaldi Planaren orain arteko balorazioa egiteko. Bertan Mikel Garaizabal alkateak eta Javier Crespo alkateordeak jakinarazi zuten, dagoeneko Aginte Planeko jarduketaren %74 eginda daude edo gauzatzen ari dira. "Joan zen ekainean hemen geunden gure lanaren berri ematen. Orduan, jarduketaren %61 gauzatzen genbiltzan eta orain %74ra igaro gara. Lanean

jarraitzen dugu eta planeko konpromiso bakar bat ere ez dugu baztertu", azaldu du Mikel Garaizabal alkateak.

Aginte Planak 11 ardatz ditu eta eurentariko askotan hainbat jarduera eginda daude dagoeneko. Hirigintza arloan, esaterako, 15 jarduketetatik sei amaituta daudela eta beste hainbeste egiten dabilzala azaldu zuten. Horietariko bat urte amaierarako amaituta egotea itxaroten dute, Zelaieta errepidearen berrurbanizazioa.



Mikel Garaizabal alkatea eta Javier Crespo alkateordea.

Atxondon Elkartasun Eguna egingo dute martxoaren 26an

'Itzalpetik plazako argire. Etxera begire' egitaraua antolatu dute zapaturako. Egun osoko egitaraua da

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondon Elkartasun Eguna egingo dute iheslari eta deportatuen egoerari buruz gogoeta egiteko eta haien egoera jendartean ikustarazteko. Atxondoko Ezker Abertzaleak jakinarazi dutenez, iheslari eta deportatuen etxera-

tzea aldarrikatzeko eguna izango da. 'Itzalpetik plazako argire. Etxera begire' egitaraua antolatu dute zapaturako. 11:30ean berbaldia egingo dute Mikel Kortagaz eta iheslari ohi batzuekin. Gero, 14:30ean, baba-jana egingo dute, eta 18:00etan mobilizazioa.



Atxondarrek Arrazolan ateratako argazkia.

Eskaintza berria Lourdesko Aman: lanbide heziketako nekazaritza-abeltzaintza zikloa



Elorrioko Lourdesko Ama ikastetxea.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Orain arte, Elorrioko Lourdesko Ama Ikastetxean derrigorrezko bigarren hezkuntzara arteko ikasleak hartzen zituzten; hortxe amaitzen zen euren eskaintza. Baina datorren ikasturtetik aurrera, eskaintza berri bat izango dute, erronka berri bat: oinarritzko lanbide-heziketako nekazaritza-abeltzaintza zikloa. 15 urtetik 17 urtera bitarteko gaztetxoei bideratutako ikasketak eskainiko dituzte. "Aurreko ikasturte amaieran sortu zitzaigun ideia. Bagenekien garai konplikatuak zetoze, eta zeozer desberdina egin behar genuela pentsatu genuen. Buru-belarri hasi ginen lanean, eta joan zen astean onarpena heldu zitzaigun. Orain erronka polita daukagu aurretik", azaldu du Igor Basterretxea Lourdesko Amako zuzendariak.

Eskaintza honegaz Elorrioko eta inguruko herrietako gazteei beste aukera bat eman gura dietela azaldu du zuzendariak, eta ikastetxeak duen "inguru zoragarriari" probetxua atera gura diotela.

BERRIZ • ARITZ MALDONADO

Ukrainako gerra pizteagaz batera, berriztar ugari joan da Olakueta Etxera informazioa jasotzera eta laguntza eskaintzera. Kezka horiei erantzuteko asmoz eta testuinguruari buruzko informazioa emateko, Olakueta Etxeko langileek batzarrera deitu zuten joan den astelehenean. "Krisi humanitario bat pizten den aldiro Jaurilaritzak Olakueta Etxea eskaintzen du; horrelako zentroetan oinarritzkoak diren beharrak betetzen ditugu, horregaitik da garrantzitsua testuingurua azaltzea", azaldu du Gorka Ruiz migratzaile zentroko koordinatzaileak. Une honetan zentroa "ia beterik" dago, eta lehenengo ukrainarrak hasi dira bertara ailegatzen. "Gurearen moduko zentroetan oinarritzkoak diren beharriak asetzen ditugu: lo egiteko lekua, janaria, higiena, medikamentuak... Eskertzekoa da herritarren jarrera, baina beste laguntza mota bat beharrezkoa da: zailtasun gehiago dute adin txikikoen eskolaratzeagaz, edo ingurura egokitzeko", gehitu du. 50 bat lagun joan ziren asteleheneko hitzordura, eta sei boluntariok izena eman dutela azpimarratu du Olakueta Etxeko arduradunak.

50 bat lagunek parte hartu dute Olakueta Etxearen jardunari buruzko berbaldian

Hiru urte eta erdi inguruko ibilbidean 33 herrialdetako 255 pertsona igaro dira Olakueta Etxetik



Olakueta Etxea.

Laguntzaren garrantzia

"Laguntza profesionala ez da denek heldzen. Zoritzarrez, pertsona migratzaileentzat ez da erraza lana topatzea edo etxe bat alokatzea, eta hor asko lagundu dezakete herrita-

rrek", esan du Ruizek. Asteleheneko batzarrean, Olakuetatik igaro diren pertsonen jatorriagaz mapa bat osatu zuten. Hiru urte eta erdiko ibilbidean, 33 nazionalitatetako 255 lagun igaro dira bertatik.



Otsailaren 6an ipini gura zuten oroigarria.

Oroitarriaren aldeko kontzentrazioa egingo dute

Zaldibarko hondamendia oroitzeko egindako eskultura ipintzea eskatuko diote udalari, beste behin

ZALDIBAR • A.M.

Iñaki Urizarrek auzolanean egindako eskultura Eitzagan ipintzeko asmoa izan zuen Zaldibar Argituk otsailean, hondakindegia amildu eta bigarren urteurrenean. Baina udal gobernu taldeak ez zuen baimenik eman eskultura ipintzeko, eta ordutik tirabira dago. Erabaki hori salatzeke eta Zaldibarko Uda-

lari eskultura ipintzea eskatzeko, elkarretaratzea egingo dute zapatuan, hilak 26. Kontzentrazioa 13:30ean izango da, udaletxe aurreko plazan. Aurretik, kanpaina egin dute herritarren babesak lortzeko. Besteak beste, etxeetako atarietan informazioa ipinita eta eskulturaren erreplikak banatuta.

aurrez aurreko ATE IREKIAK MARTXOAK 29

GOI MAILAKO ZIKLOAK 18:30
ERDI MAILAKO ZIKLOAK 17:30

info gehiago gure
webgune eta sare
sozialean



943 20 32 44
eibar@armeriaeskola.eus
www.armeriaeskola.eus



"Etorkizun baten oraina"



ArmeriaEskola^x

Alpino Tabira mendi taldeak 'Ermitak bide, Durangaldea bizi' ekimena antolatu du

Guztira, bost ibilaldi egingo dituzte ekimenaren barruan, denak zapatueta



Alpino Tabirak antolaturiko ekimen bateko argazkia. ALPINO-TABIRA.ORG

DURANGALDEA • M.ZUAZUBISKAR

Alpino Tabira mendi taldeak *Ermitak bide, Durangaldea bizi* ekimena antolatu du Durangaldeko ondarearen zati bat ezagutarazi eta horren garrantzia nabarmentzeko asmoz. Bost irteerak osatuko dute ekimena eta lehenengoa zapatu honetan izango da, martxoak 26. 15 kilometroko ibilbidea osatuko dute Elorrioko auzoetatik zehar. Mendraka, Berriozabaleta, Burgia, Zelaieta eta San Fausto auzoetatik ibiliko dira, besteak beste.

Hurrengo irteerak maiatzaren 21ean, ekainaren 18an, irailaren 18an eta azaroaren 26an izango dira.

Ekimenotan parte hartzeko, izena eman behar da, Alpinoren lokalean edo katazka@alpino-tabira.org helbidera idatzita.

Politikan

Neskutz Rodriguez Ormazabal
Herriaren Eskubidea



Sahara libre!

Durangok urte asko daramatza saharar herriarekiko elkartzaren eredu izaten, utzikieriak eta gerrak zigortutako herriarentzako udako harreari eta karabana solidarioei esker.

Aurten, haur sahararrei Durangoko Udaletik egingo zaien ongiatorrian, udal ordezkari-tza duten alderdi politiko guztiak egongo dira, baita PSE ere.

PSOEk Marokoren estrategia babesteko eta saharar herria ahazteko hartutako erabakiaren aurrean, zein aurpegirekin begiratuko diote haur horiek harrerara joango den Alderdi Sozialistaren ordezkari-tza? Nola azalduko diete euren alderdiak ez duela NBEk eskatutako erreferenduma babesten? Nork esango die beren herriak sufritzen jarraituko duela eta beren etorkizuna are zalantzarriagoa dela traizio berri honengatik?

Galdera deserosoa da, eta agian orain ez dira ume sahararren burutxoetatik pasatzen; izan ere, bere adinagatik, familia durangar batzuek elkartzunez eskaintzen dietena gozatu eta aprobetxatu besterik ez dutelako egin behar. Baina, hala ere, euren etxera, Saharara itzultzen direnean, lehen pertsona bizi eta sentituko dute.

Europar gerra bat bizi dugun honetan, geure buruari galdetzen diogu, nola gaitzetsi daitekeen Ukrainako inbasioa eta nola babestu Marokok Saharari egiten diona?

Errefuxiatu bezala zortea asko aldatzen da jatorriaren, azalaren kolorearen, ilearen edo begien arabera.

Egia esan, saharar herriak ez zuen askorik espero Espainiako gobernuarengandik, film hori dagoeneko ikusia zutelako.

Durangaldea asteen

Manex Itxaso abadiñarrak Euskal Herriko Geologiako Olinpiadak irabazi ditu

ABADIÑO | Martxo hasieran Euskal Herriko XIV. Geologiako Olinpiadak jokatu ziren EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean. Txapelketako irabazlea Manex Itxaso abadiñarra izan zen. Garai-penari eskerrak Fray Juan Zumarraga institutuko ikasleak Espainiako Geologia Olinpiadetan parte hartzeko txartela eskuratu

Udaberriko jaia eta Karibeko dantzen maratona egingo dituzte asteburuan

ABADIÑO | Zapatuan ez da jai girorik faltako Abadiñon. Alde batetik, Muntzaratzen Udaberriko Jaia ospatuko dute, eta artisau azoka, umeentzako jokoak eta Dja egongo dira, besteak beste. Bestalde, Traña-Matienako erabilera anitzeko eraikinean Karibeko Dantzen elkartasun maratona egingo da. 17:00etatik 22:00etara

Durango bidegorri sarea hedatzeko lanak lehiaketa publikora ateratu dituzte

DURANGO | Durango Udalak lehiaketa publikora ateratu du bidegorri sarea handitzeko proiektua. Trazadura berriagaz, Sasikoa kaleko bizikleta sarea eta Iurretako industrialdea batuko dute. Hau da, Cafés Baqué enpresaraino helduko da. Era berean, Eguzkitzako bidea oinezkoentzat eta bizikletentzat egokituko dute, besteak beste.



Zabalik dago 'Etartie', eskualdeko hainbat ekoizle merkatu plazan zabaldu duten postua

DURANGO | Durango Merkatu Plazak postu berri bat du joan zen astetik. Eskualdeko hainbat ekoizle (Bizio, Patxikobaso, Bejondeizula, Belaze, Pulla Baserria, Delikatetxe, Urien, Erlia, Eskubaratz, Garai eta Artizar) postu bat ipini dute Durango hornidura merkatuan euren produktuak saltzeko. Postua martitzenetik barikura egongo da zabalik. Martitzen eta eguaztenetan arratsaldean zabalduko dute, 17:00etatik 19:30era. Eguenetan, arratsaldean ez ezik, goizean ere bai, 11:30etik 13:30era. Barikuetan, goizean baino ez da egongo zabalik.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko
Baserriarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403



**Badator Korrika eta hauspotu dezagun
euskara Durangaldeko herrietan ere, denon
artean gure hizkuntzak aurrera egin dezan!**





	Igurco Korrikaren alde! Igurco Orue SERVICIOS SOCIO-SANITARIOS IMQ Igurco ZERBITZU SOZIO-SANITARIOAK	Igurco Jose Maria Azkuna SERVICIOS SOCIO-SANITARIOS IMQ Igurco ZERBITZU SOZIO-SANITARIOAK
--	--	--

Smurfit Kappa
Central forestal

55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Smurfit Kappa
Nervión



Durangaldean euskara HITZetik EKINTzetara



“Korrika ametsetako Euskal Herria bizitzea da, 11 egunean Euskal Herri euskalduna bizitzea”

Korrikako furgoneten lantaldean eta prentsa lantaldean zornotzarrak eta otxandiarak egongo dira beharrean



FURGONETA • EKAITZ HERRERA

Jende mordoia furgoneta baten atzetik, gelditu barik, musika eta animoak lagun. Labur-labur deskribatuta, horixe da Korrika, edo Korrikaren alderik begi bistakoena behintzat. Baina horrek ez du esan gura kontua hain sinplea denik, inondik ere ez. Lasterketa erraldoiaren atzean egundoko lan karga dago eta bertan inplikaturiko kide bakoitzak ardura espezifikoak ditu. Joana Txarterina Goikuriak (Zornotza, 1981), Joseba Irazabal Barrenetxeak (Otxandio, 1961) eta Ane Elordi Alburquerquek (Zornotza, 1991) ondoko dakite hori. Lehenengo biak Korrikako furgoneten lan taldean arituko dira, eta hirugarrena prentsa taldean. Era batera zein bestera, eurak izango dira arduradunak Korrika dagokion lekura eta dagokion orduan heldu dadin. Eurak izango dira Korrikaren taupadak markatuko dituztenak.

22. Korrika ate joka dago. Zelan zaudete?

Joseba Irazabal: Korrikako edizioen artean urte bi pasatzen dira eta denbora tarte hori luze egiten zaigu. Edizio bat amaituta, lasterrera etortzen zaigu hurrengorako grina. Bada, pentsa zelan gauden, aurtengo Korrika hiru urteren ondoren datorrela kontuan hartuta. Gogo handia dut Korrikarako. Iaztik hona egunak zenbatzen ibili naiz.

Ane Elordi: Oso gogotsu nago Korrikarako. Korrikak zelako prestaketa la-

na eskatzen duen igarri dut aurtengoa. **Joana Txarterina:** Ni bereziki hunkituta nago aurtengoa. Betidanik egin gura izan dudana zerbait egingo dut aurtengoa. Beti izan dut furgonetako lan taldean joateko gogoia eta aurtengoa egin ahalko dut hori, eta oso pozik

Gu AEK-ko kideak gara, baina badago lantokian oporrak hartu eta gugaz lan egitera furgonetara etortzen den jendea

nago. Egia esan, hiru urte hauek luzeak egin zaizkit.

J.I.: Gu hirurok AEKren egiturako kideak gara, baina badago kanpotik boluntario lana egitera datorren jendea ere. Eta badaude lanean oporrak hartu eta egun horiek Korrikako furgoneta lan taldean egoteko baliatzen dituzten kideak ere.

Joseba, zu furgoneta ekipoetarikoa baten burua izango zara. Urte ugari egin duzu furgonetako lan taldean lanean.

J.I.: Aurtengoa hamahirugarren edizioa izango dut furgonetako lan taldean. Nire lehenengo edizioa 10. Korrika izan zen. Harrezkero ez dut hutsik egin. Ezin erretiratu nabil (barrez).

Joana, zuretzat, oster, lehenengo edizioa izango da furgonetako lan taldean.

J.I.: Bai, niretzat lehenengo urtea izango da furgonetan. Orain arte beste lan batzuk egin izan ditut. Azken finean, AEKn gauden denak inplikatzeko gara, arlo batean ez bada, bestean. Lehen ez nintzen entrenatzen Korrikarako, baina



Boraa Enpresa-Parkea, 2 B2
Zornotza • Tfnoa. 94 630 02 41
comercial@izartool.com

izartool.com
f t i y u



Nagusi ta umeak
Oihuka ari gara
Tipi-tapa korrika
Ta gora Euskara



Han, hemen eta mkd-n
euskaraz!

orain bai. Korrika egitera irteten dut. Entrenatzera, gero ez itotzeko! **Eta, Ane. Zu, aurten, furgonetako lan taldean egotetik prentsa taldera pasatu zara.**

A.E.: Bai, eta ikuspegia aberasgarria dela uste dut. Barrutik bizi izan dut furgonetako esperientzia, eta orain prentsa furgonetara zelan egokitu daitekeen lantzea dagokit. Elkarlana beharrezkoa da. Ze, askotan, prentsako kazetariak hor dabilta "irudi hau furgonetatik aterako dut" edo "beste hau hemendik hartuko dut" pentsatzen. Baina lasterketa aurrera ateratzen dutenak furgonetako kideak dira, furgonetako lan talderik barik ez dagoelako Korrikarik. Eurak dira oinarritzkoenak. Jendea hori ulertarazten ahaleginduko gara aurten.

Hau da, furgonetako lan taldeak hartzen duela Korrika aurrera ateratzeko lana.

J.I.: Lan mordoa dago, baina lana gustura egiten denean beti egiten da errazago. Jendeak hain pozik ikusten gaituenez, oporretan gaudela pentsatzen dute. Baina lanean gabilta, eta dena ematen dugu.

A.E.: Lana da, baina, aldi berean, ohorea da. Edonork ezin du esan Korrikan furgonetan joan denik Euskal Herri osotik zehar.

J.T.: Bai, ohorea da. Euskal Herri osoan oso ezaguna den lasterketa da. Eta ez hori bakarrik. Korrika AEKren ikur ere bada. Hori barru-

tik bizitzea itzela da. Edonork ezin du halakorik esan.

A.E.: Bai. Ametsetako Euskal Herria bizitzaren parekoa da. Hamaika egunean, Euskal Herri euskaldun bat bizi duzu. Hamaika egunean denok gara euskaldun.

Zelakoa da furgonetan zoaztenen egunerokoa?

J.I.: Furgonetako lan taldean ekipo bi daude, erreleboka lan egiten duten talde bi. Talde bakoitzak hamalau orduko txandak egiten ditu.

Korrika Euskal Herria batzen duen egitasmo bakarrenetarikoa da. Iritzi politikoen gainetik, denok sentitzen dugu geure

Beraz, horrek esan gura du eguna eta gaua tartekatuz joaten garela. Gure lana zein den? Berbekin azaltzea erraza da. Guk egin behar duguna da Korrika behar duen lekura, behar duen unean eta behar duen itxuragaz helaraztea. Eta, horretarako, furgonetako taldeko kide bakoitzak bere funtzioa du. Taldeko batzuek denbora zaintzen dute, beste batzuk Korrikaren irudia zaintzeaz arduratzen dira, eta beste batzuk animatzeaz. Eta, horretaz gainera, badira beste batzuk dena martxan dagoela ziurtatzeaz

arduratzen direnak. Konponketaren bat egiten dute, edo furgonetara janaria ekartzeaz arduratzen dira. Gero, prentsa taldea dago. Oso talde garrantzitsua da Korrikaren irudia behar den moduan hedabide guztietara ailegatzeko.

Lan horietan zabilatzatenean, zein emozio nagusitzen da zuengan?

A.E.: Unearen arabera da hori; lekukoa daramanaren arabera edo lekukoa igarotzen den toki geografikoaren arabera. Hiriburuak, esaterako, oso estresagarriak dira. Eta kontrakoa, Nafarroako herri txikietatik igarotzen zarenean, euskaldun gutxi dagoen eremu batetik pasatzen zarenean, gehiago hunkitzen zara. Kontatzeagaz batera hunkitu egiten naiz. Azaltzeko ezinezkoa den korapiloa sortzen da barruan.

J.I.: Tentsio uneak ere badaude. Hiriburuak oso exigenteak dira. Oso adi egon behar duzu. Eremu konplexuak dira kudeatzeko. Gero, badira tentsioa sortzen duten beste kontu batzuk ere. Matxurak, adibidez. Musika ekipoa matxuratzea, esate baterako. Baina, zorionez, geroago eta gutxiago gertatzen da. Orokorrean, emozioa bizi dugu. Eta oso gaxa da negarrari eustea.

Joana, furgonetan zure lehenengo urtea dela eta, hunkitzeko prest?

J.T.: Bai! Pentsa, furgonetako taldean joango nintzela esan zidatenean negarrez hasi nintzen. Oso une pozgarriak biziko dituzula

jakitea oso hunkigarria da. Ederra da negar egitea gauza on bategaitik bada.

Zer du Korrikak gu hainbeste hunkitzeko?

J.T.: Esango nuke Anek lehen esandako horretan dagoela gakoa. Korrikak irauten duen hamaika egunetan Euskal Herria guztiz euskalduna da.

J.I.: Benetan gaxa da arrazoia azaltzen. Badut Barazarren ikusitako irudi bat gogoan. Gauerdia, euria zarra-zarra, hotza... Eta han berrogei lagun, saltoka Korrikaren zain. Zergaitik egiten dugu hori? Zertarako busti, hotza pasatu, mendate baten erdian galduta egon? Gero korrika apur bat egiteko? Zein indar dago horren atzean?

A.E.: Izan daiteke Korrika Euskal Herri guztia batzen duen egitasmo bakarrenetarikoa bat delako. Euskal Herri barruan denok sentitzen dugu Korrika geure, hango zein hemengo izan, iritzi politikoa bat zein beste bat izan.

J.I.: *Uhinak* dokumentaleko elkarriketatu batek dioenez, Korrikak irauten duen edozein orduetan, edozein lekutan, badakizu baten batek euskararen aldeko lekukoa daramala. Guri ere gertatu zaizkigu azaldu ezin diren kontuak. Gogoan dut furgonetako txanda bat Tafallan (Nafarroa) amaitu genuela. Afaltzera joan ginen. Eta, halako batean, afal-

tzen geundela, Korrika Tafallan sartzen zebilela entzun genuen. Afaltzeari utzi eta Korrikari harre- ra egitera irten genuen, txaloka. Zergaitik egin genuen hori, hortxe egon baginen zeozertxo lehenago? Korrika lehenengoz ikusi izan bagenu lez jokatu genuen.

Gure eskualdera etorrita, Korrika Otxandiotik ez, baina Zornotzatik pasatuko da. Zer ikusi gura zenukete zuen eskualdean?

J.I.: Otxandiarrek Landa eta Legutio arteko bidean egingo dute korrika.

J.T.: Korrika gu lanean gabiltzan txandan sartuko da Zornotzan.

A.E.: Korrikan dauden zornotzar guztiek urte osoan zehar euskaraz egitea gura nuke. Korrikak Zornotzan hartzen duen dimentsioa handia da. Non dago komunitate euskaldun hori urte osoan zehar? Goizaldean sartuko da Korrika Zornotzara. Seguru nago harrera bikaina izango duena.

Badago gehitu gura zenuketen ezer?

A.E.: Korrika erraldoia dela esan gura nuke, baina herritar guztien laguntza txikiari eskerrak egiten dela. Badugu hor Korrika Laguntzailearen kanpaina. Herritarrek laguntzaile egitera gonbidatu gura ditugu. Korrikaren web orri- ra sartu daitezke ekarpen ekonomikoak egiteko. Esku artean dugun erroka 11.000 Korrika Laguntzaile izatera ailegatzeko da.



Badator 22. Korrika! Martxoaren 31n, Durangoko Bonbardaketaren urteurrenean irtengo da Amurriotik, eta apirilaren 10ean helduko da Donostiara. "Sentitu hitzekin", dio edizio honetako abestiak. Sentimendutik abiatuko delako gure hizkuntzaren geroa; eta duela urte asko ez jakitea bazen arazo, gaur egun hautu arazoa da, gehien bat gazteen artean. Ikastetxeon kasuan, komunitate guztiak batera joan behar du norabide berean arraunean. Horrela bakarrik lortzen da benetako hezkuntza integrala. "Alperrik da ikastetxeetan hizkuntza bat ikastea, gero kalean gure artean egiten ez bada", dio abestiak.

San Antonio ikasle Batzordean DBHko maila guztietako ikasleak daude eta euren ematen digute euren erabilera bultzatzeko ekintzen eta ideien berri. Guraso Batzordea ere badaukagu eta etapa bakoitzeko arduradun bat daukagu bertan. Oso positiboa da familien ekarpenekin kontatu ahal izatea. Batzordekide hauengana eta eskolaren izenean testigua eramateko aukera izan zutenen irazteagana jo dugu Korrikaren inguruko euren testigantzak jasotzeko.

Malen Barturen: (Ikasle Batzordeko kidea)

"Niri Korrika zer den galdetzen badidate ez nuke gauza bakarra esango, Korrika ez delako hori. Korrika aurreko egunetan dortsalak ilusioz margotzea da. Korrika hasi aurretik sentitzen dugun emozioa da eta gure hizkuntza harrotasunez defendatzea."

Malen Agirreurreta: (Ikasle Batzordeko kidea)

"Egun zoragarria izan zen, pozez eta irribarrez bete. Gogo handia neukan Korrika hartan parte hartzeko. Animatzen zaituztet Korrikan parte hartzea eta euskeraz berba egitera. Gora Korrika eta gora gu!!!

Covadonga Fernandez: (Guraso Batzordeko kidea)

"Niri Korrikak haurtzarora dakarkit burura. Lehen ediziotik, urtero, egun edo gau, Korrika kilometroa egitera irteten ginen gurasoeekin. Urtero talde berdintsua ginen, Markinako Alpino Mendizale taldeko asko. Eta korrika egin ondoren txokolate bero bat hartzen genuen soziedadean, Osteko kalean, alkarrekin. Festa bat zen. Seme-alabekin berdintsu egiten saiatu gara ahal izan dugun neurrian, beraientzat ere Korrika euskararen festa eta betirako oroigarri izan daiten."

Nerea Narbaiza: (Normalkuntza arduraduna izandakoa)

"Ohore handia izan zen gure eskolaren izenean Korrikaren lekukoa eroatea."

Olatz Varela: (Normalkuntza Batzordeko kidea)

"Eskolan be etzeko euskeriek inderra hartu deizela. Ez isilik gelditu, eizu berba!"

Bego Abaunza: (Eskola Kontseiluan urteetan aritu izandakoa) "Oso harro sentitu nintzen geure hizkuntza zaharra bizirik mantentzen dogulako. Gainera 3.mailako nire ikasleekin partekatu nahi neban, beraiek ere zentzu hori neuk bezala sentitzen ebelako."

Koldo Laka: (Normalkuntza Batzordeko kidea) "Korrika elkargune berezi bat da eta bertan sentitu izan dudana ahaztezina da niretzat."



"Bakoitzak bere konpromisoak hartu behar ditu dagokion lekuan. Bestela, kosta egingo zaigu partida hau irabaztea"

Durungaldeko AEK-ko ordezkariak buru-belarri dabilta Korrika prestatzen. Herrietako taldeak dinamizatu, kilometroak banatu, ibilbidea prestatu, petoak banatu... Ika ika ika, badator Korrika!

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Mertxe Mugika Balantzategik (Elorrio, 1963) barru-barrutik ezagutzen du Korrikaren antolakuntza. AEK-ko koordinatzaile nagusi kargua utzita, orain eskualdetik bizi du Korrika. Urtebete atzerapenagaz, euskararen aldeko lasterketak Euskal Herri osoko euskaltzaleak mobilizatuko ditu. Aldarrikapena eta jaia uztartzen dituen ekimena apirilaren 1ean sartuko da Durangaldean, goizaldean. Lanean dabilta dena prest izateko. Mugikak dioenez, Korrikako gaueko orduak izaten dira politenak. Korrikaren antolakuntza zelan doan azaltzeaz gainera, euskararen egoeraren inguruko gogoeta egin du elorriarrak. 'HitzEkin' leloagaz bat egiten du.

Zein sentsazio duzue Korrikaren antolakuntzan eskualde mailan? Egun gutxi falta dira.

Pozik gaude. Azkenengo hilean badago Korrika gosea. Euskararen aldeko grina hori berpiztu egin dela igartzen dugu. Kalera irteteko gogo nabarmena dela ikusten dugu.

Durangaldetik goizaldean pasatuko da. Jendeak zer esaten dizue ordutegiaren inguruan?

Batzuek esaten digute, "zelako orduetan sartzen den Korrika eskualdean!". Nik neuk beti esaten dut gaueko orduak izaten direla politenak. Korrika bizitzeko beste modu bat izango dugu oraingoan. **Zelako erantzuna jaso duzue herrieta-ko batzarretan? Erantzun ona izaten ari zarete?**

Betiko korrikazaleetatik aparte jende berria ere badator. Urtebete atzerapenak eragina izan du, hasieran kosta egin zen mugitzea, baina hori orokorra dela uste dut.

hitzEGIN, hitzEKIN;

egin eta ekin atzo, gaur eta bihar

TXINTXIRRIN

San Pio 3 Elorrio
Tel.: 946 582 261
elorrio@ikastola.eus

www.elorriokoikastola.eus

Hizkuntzak

Alemana, euskara, frantsesa eta ingelesa

Mailak eta titulu ofizialak

A1, A2, B1, B2 (B2.1 eta B2.2), C1

Prezioa

72,36 ikasturte osoa

www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45

JUAN OROBIOGOITIA BHI

Orobiogoitiakook be, aineketan eingu!!!

Olaburu 3 - IURRETA
Tel.: 94 428 80 00
www.orobiogoitiabhi.hezkuntza.net

KALITATEA HEZKUNTZAN

Eskola Jasagarria Ziurtagiria

Etorkizuna Hitzekin eraikitzen

Beste arlo batzuetako eragileekin berba egiterakoan konturatzen gara 'nitasun' hori geroago eta handiagoa dela. Korrikak, oster, 'gu' izateko premia handia dauka. Baina orain ikusi dugu 'gutasun' horrek berriro ere irtengo duela kalera. Leloak berak dioen moduan, hitzen eta ekintzen unea da. Hitzetatik haratago joateko unea heldu da, eta horixe da Korrikak utzi behar duen arrastoa.

Urtebeteko atzerapenak eraginik izan du antolakuntzan? Gehiago kostatu zaizue dena martxan ipintzea?

Atzeratzea erabaki gogorra izan zen, baina dena prest izan dugu berriro ere martxan ipintzeko. Kostatu da berriro jendea erakartzea, bilerak egitea... beldur hori egon da. Gero, martxan ipini ahala eta beldurak uxatzen joan ahala, oso ondo joan da. Esate baterako, sorpresa handia hartu dut Korrika Txikiagaz. Eskolek eurek ikusi dute beharizana zegoela kalera irten eta euskarari ikusgarritasuna emateko. Horrelako erantzunak ikusita, argi dago aurrera goazela.

Une honetan euskararen inguruan antolatzen den aldarrikapen eta jai-rik motibagarriena izan daiteke?

Korrikak denerik dauka. Sei hila-beteko kanpaina indartsu bat da. Atzetik helburu ekonomiko bat ere badauka eta AEK-k Korrika-

ren beharizana du Euskal Herri osoan lan egiteko. Gainera, aurtan Euskaraldia ere tokatzen da. Baina, era berean, Korrika kontzientziak astintzeko ekimen bat da. Horrelako gauzak behar-beharrezkoak dira. Lasterketa bat ere bada, emozioz betea. Korrikak ikasleekin lantzeko ikas-unitateak ere baditu. Berbaldi sorta bat, Korrika kulturala, hedabideekin egiten

Korrikaren aurpegia izatetik beste leku batera pasatu naiz, baina ilusio berdina da. Aspaldian ez dut bizi izan Korrika herri mailan

den lanketa... Aukera asko ematen du kalera irteteko. Leku askotan ez duzu azaldu behar Korrika zer den. Belaunaldi bat Korrikagaz hazi da. Bizipenak barrutik bizi izan dituzte. Beraz, Korrikak uzten duen arrastoa oso handia da. Arlo aldarrikatzaileari dagokionez, Korrikak dei egiten die bai norbanakoei baita instituzioei ere. Sistema eragilean aldaketa egin behar da. Bakoitzak bere erabaki eta konpromisoak hartu behar ditu dagokion lekuan; bestela, kosta egingo zaigu partida hau irabaztea.

Orain arte lehen lerroan bizi izan duzu Korrika, AEK-ko koordinatzaile nagusi lez. Orain, kargua utzita, eskualde mailan zaude. Beste modu batera bizi duzu Korrika?

Aldea izugarria da. Korrikaren aurpegia izatetik beste leku batera pasatu naiz, baina ilusio berdina da. Aspaldian ez dut bizi izan Korrika herri mailan, baina ikusi dut jende berria etorri dela eta ilusio berdina da jarraitzen dutela. Korrikak denok batzen gaitu, goian, behean zein erdian gaudenak.

Euskalgintzan askotan esan dugu euskararen alde egotetik egitera pasatu behar dela esparru guztietan.

Bai, bestela nik neuk nekez ikusten dut partida hau irabaztea. Hortxe daude UEMak eta Klusterrak egindako ikerketaren emaitzak.

Zelan baloratzen dituzu emaitza horiek?

Ez dira txarrak. Botila zelan ikusten den da kontua. Ezagutzarik handiena duten eremuetan erabilerak gora ez egitea... baina agian dikotomia hori ere apurtu behar dugu. Badakigu beste politika batzuk martxan ipintzen ez diren neurrian erabilerak ez duela gora egingo. Uste dut hortxe dugula erronka. Norberaren hautuak ere garrantzi handia du.

Ikerketa horren arabera, eremu zabalagoetan erabilera igo egin da apur bat.

Beraz, azkenengo azterketagaz alderatuta, batez besteko argazkia antzerakoa da. Datu horiek modu positiboan baloratzen ditut. Baina uste dut erabileran zeregin handia dugula; batez ere, gazteen eremuan. Ezagutzak aurrera egin du, baina erabilerak ez. Erreferenteak beharko dira... Gauzak aldatzen doazen neurrian gauza asko birpentsatzen joan beharko dugu. Denon beharizana dago horrelako ekimen bat aurrera ateratzeko.

Klaseak ematen hasi zara berriro. Zein da euskaltegien egoera?

Durangon, esate baterako, jendea harritu egiten da ditugun ikasle kopuruak esaterakoan. Durangaldea ezagutza aldetik oso aurreratuta dagoen irudipena dago, eta egia da, baina oraindino badago multzo handi bat euskarara erakarrirri behar duguna. Euskaltegien hori ikusten dugu. Badago jendea euskaraz berba egin ahal izateko etortzen dena, beste batzuk titulu bat behar dutelako... ematen du euskaltegien beharra dagoela oraindino. Arlo sozioekonomikoan ere Mankomunitateagaz beharrean gabilitza, baita Berbalagunegaz ere. Oraindino AEKren moduko eragileen premia dago.

Garaitarrak Berrizera eta otxandiarrek Legutiora Korrikagaz bat egitera

GARAI / OTXANDIO • J.G.

Aurtan ere Korrika Garaitik pasatuko ez denez, programazio alternatiboa prestatu dute herrirako. Martxoaren 31n, 17:00etan, merendola egingo dute. Gero, pankarta margotuko dute herrian egingo duten Korrikarako. DJ Bullen furgonetagaz egin gura dute Garaiko lasterketa. Izan ere, DJ Bullek eta bere lagunak musika ipintzen dute furgonetan, Korrikako ibilbidea girotzeko. Kontua da furgonetakoek Garaiko landetxean lo egingo dutela martxoaren 31n, eta Garain furgoneta hori erabili gura dute euren Korrika berezia egiteko. Bestalde, garaitarrek Berrizko gaztetxe ondoan hartu dute kilometroa. Apirilaren 1ean elkartuko dira, 07:30ean, autopista azpian.

Korrika Otxandiotik ere ez da pasatuko. Horregaitik, otxandiarrek Legutian hartuko dute lekukoa, apirilaren 1ean, 15:00 inguruan.



Gure hizkuntzaren aldeko grina bultzatzeko Bizi-Bizi proiektua jaio da.

Euskaraz bizitzeko metodologia aktibo bat, ikasleak ahozko eta idatzizko konpetentzia modu dibertigarrian eta dinamikoan garatzera eramaten dituen.

EUSKARAZ BIZI, EUSKARAZ HEZI!



94 681 09 46
neversikastetxea.com



EUSKARAZ BIZITZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA



ESKAITZA:
0 urtetik 18 urtera bitarteko
hezkuntza eskaintza

HELBURUA:
Ikasle eleanitz, kritiko eta
euskaldunak

JANTOKIA:
Bertokoa, sasoikoa eta
produktu ekologikoak



www.kurutziagaikastola.eus



Aurten ere, Korrikak eta euskaren aldeko aldarriek Euskal Herriko mugak gaindituko dituzte

Apirilaren 2an Bartzelonan egingo dute Korrika, eta apirilaren 3an Corken (Irlanda). Josean Odiaga eta Maddalen Iturriagagoitia bertan izango dira, hurrenez hurren



Ezkerrean Corkeko argazkia, eta eskuman Bartzelonakoa.

DURANGALDEA • M.ZUAZUBISKAR

Korrika oso aproposa izaten da euskararen aldeko aldarria lau haizetara zabaltzeko, ez bakarrik Euskal Herrian, baita bertatik kanpora ere. Korrikak Euskal Herriko mugak zeharkatzen ditu, munduan zehar hainbat tokitan antolatzen dute euskararen aldeko lasterketa eta hainbat eta hainbat izaten dira munduko txoko-bazterretan korrika egiten duten euskal herritarrak. Josean Odiaga iurretarra Bartzelonan

(Katalunia) bizi da 2007tik, eta, harrezkero, bertan antolatu dituzten Korrika guztietan edo ia guztietan parte hartu du. Maddalen Iturriagagoitia abadiñarrak, ostera, aurtengoa bere bigarren Korrika izango du Euskal Herrikan, Corken (Irlanda) hain zuzen ere. Durangaldeko kide bien berbetan, Euskal Herrikan kanpora Korrikan parte hartzea eta euskararen aldeko aldarria zabaltzea "oso polita eta hunkigarria" da.

Korrika Bartzelonan

Bartzelonan apirilaren 2rako antolatu dute Korrika. Korrika txikia, 22. Korrika eta bazkaria antolatu dituzte, besteak beste. "Egun polita izaten da. Bartzelonan Korrikak jende dezente mugitzen du eta horrek esperantza txiki bat ematen digu. Horrelako ekimenekin ikusten da Euskal Herrikan kanpora ere jendeak eutsi egin gura diola euskarari, eta hori ezinbestekoa da gure hizkuntzak bizirik irauteko", aitortu

du Odiagak. Iurretarrak adierazi du Korrikak sortzen duen olatua urte guztiko ekimenetan islatzea garrantzitsua izango litzatekeela. "Urtean zehar, Bartzelonako Euskal Etxetik hainbat ekimen antolatzen dugu euskararen alde, eta horietan oso jende gutxik parte hartzen du. Horietan indarra hartzea oso garrantzitsua da", azaldu du Odiagak.

Korrika Corken

Corken apirilaren 3an egingo

dute Korrika. Herrigunetik zehar ibiliko dira euskararen aldeko aldarria zabaltzen. Iturriagagoitiaren esanetan, "euskal komunitatea bateratzeko" eta hizkuntza minorizatu bat duen herrialde batentzat "eredu izateko" momentu aproposa izaten da Korrika. "Azken Korrika, esaterako, oso hunkigarria izan zen eta Corken bizi ziren gainerako euskaldunak ezagutzeko eta euskal komunitatea bateratzeko une aproposa izan zen", amaitu du abadiñarrak.



Eitua Ind. Pol., 63,
48240 Berriz
Tel.: 943 75 21 00



KORRIKA • ARITZ MALDONADO

Hiru urteko hutsunearen ondoren, Durangaldeko Gazte Klak! egitasmoak harrera egin gura dio euskararen aldeko ekimenik handienari. Horrela, Durangaldeko ikasle gazteak Euskal Herriko hainbat herritar eramanango ditu Euskal Herria Korrika ekimenagaz. Apirilaren 1etik 9ra bitartean, zazpi herrialdeetan ekimen bana egingo dute Korrika babesteko. Durangoko Ibaizabal eta Fray Juan Zumarraga institutuak eta Iurretako Juan Orobiogoitia institutuko batxilergoko ikasleek parte hartuko dute bertan. Donibane Garazin eta Maulen (apirilak 4), Lekunberrin (apirilak 5), Murgian (apirilak 6), Tolosan (apirilak 8) eta Baionan (apirilak 9) egongo dira gazteak, hirukoteka banatuta; talde bakoitzak herri batean korrika egingo du. "Durangaldeko gazte ikasleekin zazpi herrialdeetan korrika egitea gura dugu", azaldu du Eneko Iraeta Gazte Klak! egitasmoko dinamizatzaileak. Korrika ez ezik, bertako eragile eta elkarteekin topaketak egingo dituzte gazteak; horrez gainera, herrietako lekuri esanguratsuenak ere bisitatu gura dituzte. Esperientzia partekatu eta hartu-emanak sareteaz gainera, Durangaldeko gazteek kultur otzara banatuko diete bisitatuko dituzten herrietakoei. "Ikasleek eurek aukeraturiko Durangaldeko liburu bat, disko bat eta zerbait sinbolikoa izango dena banatuko dute", esan du Iraetak. Egun hauetako esperientzia bideoz grabatuko dute, gero kronika egiteko. "Ikasleak oso motibatuta daude eta igartzen da Korrikarako gogoia dagoela euren artean",

Klak! egitasmoak zazpi herritan korrika ipiniko ditu Durangaldeko ikasleak

Durangaldeko hiru ikastetxeko ikasleek Euskal Herriko zazpi herrialdeetan korrika egingo dute apirilaren 1tik 9ra



Ekimenean parte hartuko duten gazteak.

04:15ean hasita, kalejira musikatu egingo dute Gazte Kilometroa girotzeko

gaineratu du. Azken finean, hiru urte izan dira Korrikarik barik.

Klak! egitasmoa 1. eta 2. batxilergoko gazte ikasleen artean euskararen erabilera soziala bultzatzeko

Durangon horma irudi bat margotuko dute GAZTEOK HITZEKIN leloagaz

erronken bidezko proiektua da, hau da, euren artean euskararen erabilera bultzatzea du helburu. Horretarako, hainbat erronka plazaratzen dute. Sortu zenetik, honako ekimen hauek antolatu dituzte, besteak beste: ikastaroak, kontzertuak eta bertso saioak.

Harrera beroa

Korrika Durangaldera goizaldean helduko den arren, gazteek harrera beroa egin gura diote. 04:15ean hasita, kalejira musikatu egingo dute; gero, Gazte Kilometroan musikagaz itxarongo dute. "Giroa berotzen ahaleginduko gara, Korrika heldu orduko gu prest egoteko. Korrika gauez etorriko denez, harrera ikusgarria izan dadin ahaleginduko gara, beste ikasle eta gazte eragile batzuekin batera", esan dute. Gazte Kilometroa aurreko edizioan ere egin zuten, eta harrera ona izan zuela ikusita ekimena errepikatu gura izan dute. Goizaldeko ordu txikietan izango bada ere, aurtengo harrera beroa emango diote Korrikari Durangaldean.

Horrez gainera, gazteek horma irudi bat margotuko dute azken egunetan Durangon, Gazteok HITZEKIN leloagaz. Horma irudia Fray Juan Zumarraga institutuko batxiler artistikoko ikasleek egingo dute, Durangoko Komentukalean.



INSTITUTUA
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA-DURANGO

**Durangoko Institutuan,
Euskara aho eta
bihotzean!**

ehbildu

Korrikarekin bat!



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA

0-18 URTE

HAZI eta HEZI gurekin

Euskaraz!



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA



ibaizabal
IKASTOLA



ikastolenelkartea

Larrea z/g - Amorebieta-Etxano - Tel.: 946 732 950
zornotza@ikastola.eus - www.zornotzaikastola.eus



Durangoko pentsiodunen mugimenduak bat egin du Korrikagaz eta lekukoa eramango dute kilometro batean

Astelehenean udaletxe pareko plazan egindako batzar irekian aho batez erabaki zuten talde eragiletik egindako proposamena



Durangoko pentsiodunen mugimendua asteleheneko batzarrean, aurtengo Korrikan parte hartzea erabaki zuten egunean.

KORRIKA • J.D.

Durangoko pentsiodunen mugimenduko kideen ahotik ere euskararen aldeko aldarriak entzungo dira apirilaren 1ean. Talde eragiletik irtendako ideia aho batez onartu zuten astelehenean, udaletxe aurreko plazan egindako batzar irekian. "Pentsiodunak mugimendu bat garen neurrian, gizarteko maila guztietan gure ekarpena egitea egokitzen zaigu eta euskara eta Korrika dira euretariko bat", azaldu du Marilo Aldeanuevak, Durangoko pentsiodunen mugimenduko kideak.

Durango inguruan eramango dute lekukoa kilometro batean. Oraindino ez dute erabaki nortzuek eramango duten, baina argi

dutena da ez dela pertsona bakarra izango. "Taldea bat gara eta hainbat artean eramango dugu", dio Aldeanuevak.

Euskararen egoera zelan ikusten duten galdetuta, esperantzarako zantzuak ikusten dituzte, baina oraindino egiteko asko dagoela uste dute mugimenduko kideek, batez ere erabileran. Frankismoko sasoi gogorak gogora ekarrita, gaur egun gazteek euskaraz "gehiago" egiten dutela nabaritu du Pilar Txuntxurretak, eta horrek "poztu" egiten du. "Gure gaztaroan egoera beste bat zen", dio. Peio Elexperen iritziz, gazteen artean euskararen erabilera "gutxitu" egiten da "gauean, jaigiroan dabiltzanean", eta gaztelaniara jotzen dutela dio. Al-

deanuevaren esanetan, geografiak ere markatzen du erabilera maila. "Lagun talde baten ondotik pasatzean, belarria hemen edo Markinan ipini, esaterako, emaitza oso desberdina da", argitu du. Horiek

"Mugimendu bat garen neurrian, gizartean ekarpenak egitea dagokigu eta Korrika da euretariko bat"

horrela, "euskararekiko jarrera geroago eta zabalagoa" dela uste du Aldeanuevak, baina oraindino "falta zaigula" normaltasunera heltzeko.

Mozioa udaletxean

Beste herri askotako pentsiodunen mugimenduak lez, Durangokoa ere astero batzen da. Batzar horietan, nagusien arloko politikan egondako azken albisteen errepasoa eta interpretazioa egiten dute eta aurrera begirako pausoak finkatzen dituzte.

Esaterako, astelehen honetan, Durangoko udalbatzarrean mozio bat sartu zutela iragarri zuten. Bankuen gaineko mozioa da. Pil-pilean dagoen gaia da. Bankuetan aurreko arreta zerbitzua gutxitzen joan da azken urteetan. Horrek nagusien haserre eragin du. Joera hori geratzeko, sinadura bilketa bat egin zuten eta arrakasta izan zuen (640.000 sinadura). Horren ondo-

ren, banku askok aurrez aurreko zerbitzua handitu egingo zutela iragarri zuten. "Ez gara fidatzen", dio Elexpek. "Oraindino bankuetan pertsona ilarak ikusten ditugu eta, edozelan ere, ez dakigu erabakiek

Oraindino ez dute erabaki nortzuek eramango duten lekukoa, baina batek baino gehiagok eramango dute

noiz arte iraungo duten", gaineratu du. Horregaitik sartu dute mozioa. Bertan, banku publikoa aldarrikatu, leihatilak lanaldi osoz zabalik egotea eskatu eta bankuak eta sukurtsalak ez ixteko eskatzen dute.



Anboto eta Berbaro Korrikarekin bat!



25 urte euskaraz!



Trañatxoste 10, 48220 Abadiño
Tel.: 944 287 969
015071aa@hezuntza.net | www.iesabadinobhi.com

naiz: hamaika berria

22. korrika HITZETIKIN

Amurriotik Donostiara 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era



korrika.eus



MARTXOAK 31 OSTEAGUNA

Amurrio	16:30
Arespalditza	17:19
Artziniega	18:15
Balmaseda	19:29
Zalla	20:18
Gueñes	21:02
Gordexola	21:36
Okondo	22:06
Laudio	22:38
Ugao	23:51

APIRILAK 1, OSTIRALA

Arrigorriaga	00:20
Basauri	01:03
Etxebarri	01:54
Galdakao	02:27
Zornotza	03:29
Iurreta	04:44
Durango	05:11
Abadino	06:00
Elorrio	06:55
Berriz	07:40
Zaldibar	08:10
Mallabia	08:36
Ermua	08:59
Eibar	09:30
Elgoibar	10:16
Soraluze	10:55
Bergara	11:59
Arrasate	12:57
Aretxabaleta	13:43
Eskoriatza	13:56
Legutio	15:00
Urbina	16:00
Luku	16:26
Dura	16:58
Gasteiz (Bergarako atea)	17:09
Gasteiz (erdialdea)	20:13

Gasteiz (Elorriagako atea)	21:00
Arkaute	21:07
Dulantzi	22:18
Deredia	23:04
Agurain	23:49

APIRILAK 2, LARUNBATA

Zalduondo	00:39
Araia	01:20
Egino	01:52
Olazagutia	02:34
Bakaiku	03:56
Etxarri	04:24
Lakuntza	05:09
Hiriberri	06:16
Urritzola	06:57
Otxobi	07:50
Berriozar	09:03
Iruñea	09:26
Antsoain	09:47
Iruñea	09:56
Burlata	10:10
Atarrabia	10:24
Uharte	10:33
Sarriguren	10:54
Iruñea	11:15
Barañain	13:43
Zizur Nagusia	14:09
Noain	15:06
Espartza	15:48
Astrain	16:39
Uterga	17:20
Gares	18:02
Mendigorría	18:49
Artaxoa	19:43
Tafalla	20:59
Larraga	23:02

APIRILAK 3, IGANDEA

Lerin	00:34
Lodosa	02:40

Andosilla	04:22
San Adrián	04:48
Azagra	05:14
Cadreita	07:29
Corella	09:42
Cintruénigo	10:19
Tutera	11:45
Alesbes	15:44
Martzilla	16:38
Caparrosa	17:29
Zarrakastelu	19:30
Kaseda	21:53
Gabarderal	22:35
Lakuntza	23:01
Ledeia	23:40

APIRILAK 4, ASTELEHENA

Irunberri	00:39
Domeñu	01:18
Nabaskoze	03:07
Burgi	04:45
Erronkari	05:58
Izaba	06:37
Uztarroze	07:10
Itzaltzu	08:47
Otsagabia	09:07
Ezkarotze	09:20
Abaurregaina	10:45
Abaurrepea	11:08
Garralda	12:18
Aurizperri	13:10
Orreaga	14:02
Luzaide	15:45
D. Garazi	17:00
Lakarra	17:42
Larabale	18:41
Donaxiti	19:25
Muskildi	20:30
Maule	21:28
Sarrikotapea	22:27

APIRILAK 5, ASTEARTEA

Donapaleu	00:00
Iholdi	02:04
Ortzaize	03:11
Baigorri	03:52
Erratzu	05:55
Arizkun	06:15
Elizondo	06:47
Aniz	07:49
Berroeta	08:02
Almendoz	08:21
Arraitz	10:05
Laraintzar	10:44
Jauntsarats	11:49
Aldatz	12:48
Mugiro	13:21
Lekunberri	13:34
Iruztzun	15:29
Azantza	17:24
Genbe	18:39
Muetz	19:18
Lizarrá	20:56
Iratxe	21:41
Murieta	22:45
Antzin	23:05
Acedo	23:44

APIRILAK 6, ASTEAZKENA

Kanpezu	00:40
Genevilla	01:15
Kabredo	01:32
Marañon	01:47
Bernedo	02:21

Baxauri	03:12
Albaita	04:09
Trebiñu	05:21
Argantzón	06:19
Langraiz	07:10
Izarra	09:45
Murgia	10:29
Ondategi	11:41
Zeanuri	13:20
Areatza	14:25
Igorre	15:09
Lemoa	15:38
Usansolo	16:16
Larrabetzu	16:41
Zamudio	17:35
Derio	18:01
Erando	18:56
Bilbo (San Ignazio)	19:36
Bilbo (Zazpikaleak)	22:06
Bilbo (Zorrotza)	23:40
Barakaldo	23:51

APIRILAK 7, OSTEAGUNA

Sestao	01:07
Trapagaran	01:31
Ortuella	02:00
Abanto	02:38
Muskiz	03:22
Zierbena	04:15
Santurtzi	04:52
Portugalete	05:29
Getxo (Romo)	06:24
Leioa	07:06
Getxo (Algorta)	07:26
Berango	08:19
Sopela	08:37
Urduliz	08:58
Gorliz	09:41
Gatika	10:42
Mungia	11:05
Bakio	12:21
Bermeo	13:23
Mundaka	14:20
Busturia	14:53
Gernika	15:38
Gautegiz Arteaga	16:35

Ibarrangelu	17:14
Ea	17:34
Lekeitio	18:39
Aulesti	19:33
Markina-Xemein	20:37
Berriatua	21:30
Ondarroa	22:29
Mutriku	23:20

APIRILAK 8, OSTIRALA

Deba	00:01
Zestoa	01:30
Zumaia	02:58
Getaria	03:55
Zarautz	04:26
Orio	05:21
Usurbil	06:26
Lasarte	07:11
Urnieta	08:13
Andoain	08:43
Villabona	09:55
Tolosa	10:40
Bidania	11:51
Errezil	12:23
Azpeitia	13:26
Azkoitia	14:07
Urretxu	15:49
Zumarraga	16:08
Ormaiztegui	17:00
Segura	17:46
Idiazabal	18:18
Lazkao	19:10
Beasain	19:36
Ordizia	20:09
Lagorreta	21:01
Altzo	21:59
Tolosa	22:25
Ibarra	22:45
Berastegi	23:43

APIRILAK 9, LARUNBATA

Leitza	00:35
Ezkurra	01:53
Zubietza	02:54
Doneztebe	03:40
Sunbilla	04:06
Igantzi	05:07
Lesaka	05:40
Bera	06:17
Urruña	07:11
Azkaine	07:44
Senpere	08:23
Sara	09:34
Zugarramurdi	10:40
Ainhua	11:21
Ezpeleta	11:54
Itsasu	12:27
Kanbo	12:51
Hazparne	13:46
Haltsu	15:21
Uztaritze	15:48
Milafranga	16:33
Hiriburu	16:59
Baiona	17:28
Angelu	19:43
Biarritz	20:16
Bidarte	21:34
Getaria	22:07
D. Lohizune	22:20
Ziburu	23:10
Urruña	23:41

APIRILAK 10, IGANDEA

Hendaia	00:14
Irun	00:53
Hondarribia	01:39
Irun	02:21
Oiartzun	03:09
Errenteria	03:44
Lezo	04:03
Pasaia	04:32
Astigarraga	06:19
Hernani	06:49
Donostia (Anorga)	07:36
Donostia (Parte zaharra)	09:05
Donostia (amaiera)	12:30



Martxoak 25

BERRIZ antzerkia
‘Tempus’ (El que ma quedá de Teatre), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO tertulia
‘Tertulia saltseroa: Salley Rooneyren jende normala’, 18:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan.

ELORRIO antzerkia
‘Yerma’ (La Dramática Errante), 20:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA dantza
‘L.O.F. Ladies on Figth’ (Eva Guerteroren konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA musika
Noran, 20:00etan, Zelaieta Zentroan.

Martxoak 26

ABADIÑO maratokia
Karibeko dantzen elkartasun maratokia, 17:00etan, Traña-Matienako erabilera anitzeko eraikinean.

ABADIÑO jaia
Udaberri jaia, 11:00etan hasita, Muntzaratz auzoan. Artisautza azoka, eta umeentzako jolasak eta tailerrak egongo dira. Dj Cristian Piornedo, 18.00etan hasita.

BERRIZ ipuinak

‘Puskerrak eta abestiak’, ipuin kontaketa saioa (Bihar Taldea), 12:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

BERRIZ antzerkia
‘Cabezas de Cartel’ (Perigallo Teatro), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO ekitaldia
Okupazioaren aldeko eguna: kontzentrazioa, 12:30ean, Andra Marian. Ondoren, kalejira Sorginolaraino. Kontzertua: **Joni Txintxes**, 13:30ean. Barazki parrillada, 14:30ean. Kontzertua: **Parkatu + Klitorix + Gorrotoa Gorroto + Ainke**, 18:00etan. Ondoren, pintxada: **Birrokanrollers**. Zozketa solidarioa egingo dute.

DURANGO ikuskizuna
Irrien lagunak: ‘Elkartasun jantokia’, 18:30ean, Kurutziaga Ikastolan. Ateak 17:00etatik zabalik.

ELORRIO musika
Rodeo + The Clayton, 22:00etan, Gaztetxean.

OTXANDIO musika
Berbaldia: ‘Euskara eta klase sozialak’, 17:00etan, gaztetxean.
Kontzertua: Aforrau + Alerta Gorria + Libertad Condicional, 22:00etan.

OTXANDIO dokumentalak
Menditour 2002 Mendi Film Festival: ‘Melting

Abesti Feministen IV. Lehiaketa

MUSIKA **DURANGO :: Martxoak 26**

Abesti feministen lehiaketa San Agustin kulturgunean

Zapatuan, aldarri eta abesti feministez beteko dira San Agustin kulturguneko barrualdeak. Durangoko Berdintasun Sailak Abesti Feministen IV. lehiaketa antolatu du eta jendaurrean entzungai egongo dira musika adierazpenak eta sorkuntza feministak. Ekitaldia 19:00etan hasiko da, eta, guztira, 39 artista igoko dira oholtza gainera, inoizko kopururik handiena. “Emakume eta gizonen arteko berdintasuna irudikatu

eta deskribatzen duten abestiak bilatzen ditugu; genero aniztasuna goستن dutenak, desberdintasunak azalaratzen dituztenak; maitasuna jabe-kuntzatik ulertzen dutenak edo genero estereotipoak saihesten dituztenak”, adierazi dute Garazi Errasti eta Neskutz Rodríguez zinegotziek. "Durangoko emakumeak ahaldundu gura ditugu eta kultura helburu hori lortzeko bidelagun izan daiteke", gaineratu dute.

Martxoaren 31ra arte

DURANGO erakusketa
Tupust erakusketa Arteka liburu-dendan.

ELORRIO erakusketa
‘Lanigredo’ Larraitz Loizate Etxarteren argazkiak, Iturri kultur etxean. Noctis Photobookesegaz lankidetzan sorturiko lana.

ZORNOTZA erakusketa
‘No soy flor de tu florero’ Alejandra Buenoren argazki eta bideo erakusketa Zelaieta zentroan.

Apirilak 1

BERRIZ antzerkia
‘Ganbara’ (Markeliñe), 17:00etan, Kultur Etxean.

Apirilaren 24ra arte

DURANGO Erakusketa
Goyaren, Haesen eta Fortunyren grabatuak, Arte eta Historia Museon.

Eguaztenetan

IURRETA jaiak
Iurretako Jai Batzordearen batzarrak, 20:00etan, plazan.

landscapes Glaciares’, **‘Amagana’**, **‘Txango’**, **‘Jötunn’ eta ‘The traverse’** ikus-entzunezkoak, 19:00etan, Mainondo kiroldegian.

ZORNOTZA desfilea
Urritxe Institutuko desfilea, 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoak 27

ABADIÑO antzerkia
‘Lehendakari Gaia’ (Txalo Produkzioak), 19:00etan, Errota kultur etxean.

BERRIZ bertsoak
Bertso saio literarioa: Miren Amuriza, Uxue Alberdi, Ane Labaka, Leire Vargas eta Nerea Aizpurua, 12:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia
‘El viento es salvaje’ (Las Niñas de Cadiz), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO euskal dantzak
Euskal Jaia: dantzarien kalejira 11:00etan, frontoitik irtenda. Alardea, 12:30ean, plazan.

Martxoak 28

ZALDIBAR musika
Bihotz Gorospe, 18:30ean liburutegian.

ANBOTOkO agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA
• Belfast
barikua 25: 19:30
domeka 27: 19:00

:: Durango ZUGAZA ZINEMA
• La cima
barikua 25: 18:30/20:30
zapatua 26: 18:00
domeka 27: 18:00
astelehena 28: 18:00/20:15
martitzena 29: 18:00/20:15
eguzatena 30: 19:00

• Camera Café
barikua 25: 18:30/20:30
zapatua 26: 18:00/20:00
domeka 27: 18:00/20:00
astelehena 28: 18:00/20:15
martitzena 29: 18:00/20:15
eguzatena 30: 19:00

• Llegaron de noche
barikua 25: 20:30
zapatua 26: 19:20
domeka 27: 19:20
astelehena 28: 18:00
martitzena 29: 20:15
eguzatena 30: 19:00

• A tiempo completo
barikua 25: 18:30
zapatua 26: 20:00
domeka 27: 20:00
astelehena 28: 20:15
martitzena 29: 18:00

• Los tipos malos
zapatua 26: 17:00
domeka 27: 17:00

• 31 vidas. El homenaje
eguna 31: 17:00/18:30

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA
• El acontecimiento
zapatua 26: 20:00
domeka 27: 20:00
astelehena 28: 20:00

• Stardog & Turbocat
domeka 27: 17:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA
• Licorice Pizza
domeka 27: 20:00
astelehena 28: 20:15

• Kaporito: El guardián de la montaña
domeka 27: 17:00

“Disko berrian betiko stoner doinuez gainera, elementu berriak ere badira”

Rodeo taldeak kontzertua eskainiko du Elorrioko gaztetxean, zapatuan, The Claytons taldeagaz batera; 23:00etan hasiko da



OIER ARREGI

Beñat Subinas, Orti Alberdi, Oroitz Urbieto eta Mikel Illarramendi, Rodeo taldeko kideak.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Rodeo talde zestoarrak 'Moira' diskoa kaleratu du martxoan. Pozik daude emaitzagaz, eta gogotsu jendaurrean aurkezteko. Etxeko sinadura daramaten stoner doinu pisutsuei bestelako doinu esperimentalagoak gehitu dizkiete oraingoan.

'Moira' martxoan kaleratu duzue. Pozik zaudete harreragaz?

Pertsonalki, oso gustura gaude diskoaren emaitzarekin. Jarraitzaileen aldetik ere *feedback* ona jaso dugu eta balorazioa positiboa da.

Urrian bigarren disko bat ere kalera-tuko duzue. Badute loturarik?

Disko bikoitza da, bai. Lehenengo urtean atera genituen *Prometheo*

singleekin batera, osotasun bat lortuko dute bi lanek, musikalki zein kontzeptualki. *Prometheo*-ren istorioa lan osoa zeharkatzen duen metafora bezala harturik, *Moirak*, gaur egun bizi dugun egoeratik abiatuz, gure *Prometheo*-ren sorrera kontatzen du. Hurrengo diskoak berriro ere bere ibilbidea kontatuko du. Esan dezakegu bi diskoak *Prometheo*-ren prekueta eta sekuela modura funtzionatuko dutela, hurrenez hurren.

Karlos Osinaga 'Txap'-ek egin ditu ekoizle lanak. Nolatan aukeraketa hori? Pozik zaudete emaitzagaz? 'Tartaro' abestian ahotsak sartu ditu.

2020an *Ezherrian* lan laburra Bonberenea Ekintzak-ekin elkarlanean atera genuen, eta hortik etorri zen Karlos Osinagarekin grabatzeko ideia. Gure 'konfort' zonatik irtetea (etxean grabatzearen segurtasuna), soinu ezberdin bat aurkitzea eta guretzat berria den produktore batekin lan egitea izan dira besteak beste bertan grabatzearen arrazoiak. Azken finean, orain arteko lan guztiak Zestoan bertan Eñaut Gaztañagaren gidaritzapean egin ostean, erronka itzela izan da esperientzia berri hau. Esperientzia bikaina izan dela esan dezakegu, eta etxean bezala sentitu gara uneoro. Agian *Tartaro* abestia Ro-

deoren historian bere estilora gehien hurbiltzen den kanta dela ikusita, proposa iruditu zitzaigun 'Txap'-en ukitu bat sartzeko. Grabaketa prozesuan bertan era naturalean irten zen ideia hori. Zati hori instrumentala zenean ere garbi zegoen estilo horretako ahotsen bat sartu behar genuela, errezitatuz, eta oso gustura geratu gara emaitzarekin.

'Krinein' abestian txistua sartu duzue. Nolatan?

Abesti hau oso berezia da guretzat. Diskoa amaitzeko eginiko kanta da *Krinein*, ia zortzi minutukoa. Ortzik txistua jotzen dakienez, askotan komentatu izan dugu egunen batean txistua

sartu behar genuela abestiren batean. Broma modura hasi zen, baina abestiari forma ematen ari ginela probatzen hasi ginen, eta ongi geratzen zela ikusi genuen. Momentu berezia eta epikoa dela esan genezake.

Orain arteko lanak Eñaut Gaztañagarekin Zestoan bertan egin eta gero, erronka itzela izan da esperientzia berri hau

2014an sortu zen taldea eta ordutik soinu propio bat garatu duzuela esango nuke, stonerra hari nagusi lez hartuta, baina bestelako elementuekin jolasean ere bai. Zelako garapena igarri duzue?

Egia esan, garapen naturala izan dela esan dezakegu. Denbora asko pasatzen dugu elkarrekin eta musika asko partekatzen dugu. Gure gustu musikala ere garatzen doan neurrian, konposatzerako orduan ere, entzuten eta gustatzen zaigun musikara hurbiltzen gara, era naturalean. Disko hauetan, betiko stoner estiloaz gainera, elementu berriak ere badirela esan genezake, behin emaitzan entzun ondoren post-punk eta post-hardcore nahiz psikodelia modernoaren zenbait zantzu, esaterako.

Zuzenean asko aritzekoak zarete. Gogotsu zaudete disko hau(ek) zuzenean aurkezteko?

Bai, egia esan, oso gogotsu eta ilusioz eman diogu hasiera aurkezpen bira honi eta dagoeneko kontzertu sorta bat lotua dugu. Bigarren diskoari dagokionez, urrian hasiko gara aurkezpen kontzertuekin.

Elorrioko emanaldian zer ikusiko du bertaratzen denak?

Kontzertuaren zatirik handienean, *Moira* diskoko kantak joko ditugu, baina kanta zaharrak ere ez dira faltako. Disko hau prestatzen eman dugun denbora guztiaren ondoren, gogotsu gaude emaitza jendaurrean aurkezteko, eta dena ematen saiatuko gara. Ez hutsik egin!

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak

1# ERAKUNTZARAKO MATERIALA Eider Rodriguez (Susa)	2# DENA AMETSA DEN IRUDIPENA Leire Vargas (Elkar)	3# IZURDEEN AURREKO BIZITZA Kirmen Uribe (Susa)	4# FAITH Lander Garro (Elkar)	5# MIÑAN Ametz Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)
--	--	--	--	--

ASTE SANTUKO TAILERRAK

IZEN-EMATEA

Martxoak 28 - Apirilak 1

9 MARITZE KULTUR ETXEA

ZIENTZIA TAILERRAK

APIRILAK 11,12

10:00-11:30

ARGIAK, KOLOREA, ANIZIA ETA ZOMORROAK (L.H. 1-4)

12:00-13:30

CSI IURRETA - PH FACTOR (L.H. 5-8.H. 2)

Iurreta



'Ladies on fight'.

'Ladies On Fight' ikuskizunak ring bihurtuko du Zornotza Aretoa

Eva Guerrerok zuzentzen duen 'Ladies On Fight' Zornotzan ikusi ahalko da, barikuan, 20:00etan

ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO
Borroka eta dantza uztartzen dituen emanaldia egongo da ikusgai zapatuan Zornotzan. Obrak abiapuntu sinplea du: ring bat, lau borrokalari eta epaile bat; gaualdiak irabazle bakarria izango du. Maria Urcelayk gidaturiko borrokan, Garazi Lopez de Armentiak eta Leire Otamendik osatzen duten bikotea Helenna Wilhelmssonek eta Estivaliz Villak osatzen dutenaren aurka borrokatuko da. Nor baino nor gehiago, irabazteagaitik noraino heltzeko prest dauden ikusiko da antzezlanean; hainbat gai jo-

rratuko dute taula gainean, tragi-komedia formatuan: prekaritatea, sexualizazioa eta lehiakortasuna, besteak beste. Aurretik, Berrizen ere egon da aukera antzezlana ikusteko; Durangoko San Agustin kulturgunean ere eskaini zuten emanaldia, atzo.
Antzezlana Eva Guerrerok zuzendu du; Jemima Canogaz batera, Guerrerok DOOS kolektiboa sortu zuen 2013an. Harrezkero, lau antzezlan luze eta proiektu ugari sortu ditu. Horien artean, *Gorpuztu* antzezlana izan zen arrakastatsuenetakoa. 2019an sortu

zuten eta gaur egun biran daude oraindino; Euskal Herrian ez ezik, Espainian eta munduko beste herrialde batzuetan ere aurkeztu dute ikuskizuna.
Noran taldea
Antzezlanaz gainera, Zornotza Zentroan musikaz gozatzeko aukera ere egongo da. Izan ere, Noran pop-rock talde bizkaitarrak kontzertua eskainiko du, 20:30ean. Noran proiektu musika 2019an ipini zuten martxan Uribe Kostako eta Urdaibaiko bost gaztek.

Tontolapiko Eguna Topaklownen lekukoa hartuko du Durangon

Apirilaren 16an egingo dute Tontolapiko Eguna; umore ikuskizunen egun osoko jaialdia izango da

ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO
Umore ikuskizunen egun osoko jaialdia antolatu dute Durangon. Bertan, bost ikuskizun gozatu ahal izango dira, horietariko lau kalean. Ganso&Ciaren *Babo Royal*, Toti Toronellen *Libelula*, Señor Stetsen *Lonely Orkestar*, Cris-isen *Home*, eta Wilburren *Fuego Salvaje* ikusi ahalko dira. Emanaldiak Aurora Abasolo parkean, Ezkurdin, Josemiel Barandiaran kalean eta San Agustin kulturgunean izango dira.

Gorka Ganso eta Cecilia Paganini antolatzaileek "terapia lez" aldarrikatu dute umorea. "Topaklown jaialdia antolatzea hamar hilabeteko lana izaten da eta egungoaren moduko testuinguru aldakorrean ezinezkoa da antolatzea", azaldu zuten aurkezpenean. Topaklown jaialdiaren ordeztu, Tontolapiko Eguna antolatu dutela adierazi dute Juanan Bueno eta Jorge Varela zinegotziek. "Errazena ezer ere ez antolatzea litzateke", nabarmendu dute.



Tontolapiko egunaren aurkezpene.

Gai librean

Arantxa Tapiari,

Herri mailako, gerra intimo eta latz batean, beste behin, egunkari, teleberri eta astekarietan zure izena diotenez. Behingoz erabaki duzu gu denon etxea erostea. Ondoren, oraindik barruan gaudela, gure ametsen eraiste neurtuari ekitea. Guk horrenbeste denboran, eta horrenbesteko afanez gordea, eraldatua eta zabaldua izan den gaztetxea, zuentzat ez duela adina balio onartzea.
Ze zu beti bizi izan zara poltsiko gutxi batzuk helburu dituen alderdi batean. Gezurretakoa dirudien, etengabeko ladrillo eta porlanezko eraikuntza lanetan. Ez zenuela nahi honaino iritsi, baina beste inora ere ez. Zuen eredu zalantzan jartzen duenaren etengabeko pertsekuzio bat bihurtu zenuten.



Ainhoa Olaso Sopelana Behargina

Herri mailako, gerra intimo eta latz batean, beste behin, egunkari, teleberri eta astekarietan zure izena diotenez

'Euskadi auzolana' hura bihurtu zen denborarekin 'Sorginola botako dugu kideekin hitz egin gabe'

Gure bizitzen arduratik ihes egiten duzue eta pribatizazioaz enpresa handienei jarraitzen diozue. Horren artean zabilta, jaungoikoaren eta lege zaharren itzalaren jabe.

Ez zara besteek uste dutena, agian zeuk uste duzuna ere ez. "Euskadi auzolana" hura bihurtu zen denborarekin "Sorginola botako dugu bertako kideekin hitz egin gabe". Zuen aukeren gainetik amestu behar izan zenuten, gure irteera zen ondorio hartatik, irabazle aterako bazineten. Horregatik erabaki duzu gure amets denak eraistea. Baina jakin ezazu, hobe duzula momentu batez, gu bakean uztea. Gure zutabeak eta teilatua, zuen garabiekin eutsi bitartean, gurekin amore ematea. Guk, elkarren ondoan, ilargiak buelta bat ematen digun bitartean, goiz gorri eta ederren bideetatik jarraituko dugula. Eta zuk hobe duzu zeure barrutik salto egin eta zeure helburuaz beste egitea. Gu beste bat egitera goaz!

Durangoko duatloian bizikletako ibilbide berria estreinatuko dute domekan: Abadiñotik Durangora, Eguzkitza auzotik

N-634 errepidea erabiltzeko baimenik lortu ez dutenez, beste alderantza jo dute 10 kilometroko zirkuitua diseinatzeko, eta gustura daude emaitzagaz



lazko urriko duatloiko irudia. Egun berean egin zituzten lasterketa herrikoia eta duatloia.

DUATLOIA • JOSEBA DERTEANO

Gorka Uribeetxebarriaren oroimenezko duatloiak 14. aldia egingo du domeka honetan. Aurten bere ohiko data berreskuratuko du, martxoa. Pandemiak eragin da, urrian egin zuten iaz, lasterketa herrikoiaz batera, baina aur-

tendik aurrera bere ohiko datara itzuli gura dute.

Lasterketa bi egongo dira: sprint (5 km-20 km-2,5 km) eta supersprint (2,5-10-1,25) modalitatekoak. Azken hori iaz antolatu zuten lehenengoz, eta aurten eutsi egingo diote. Kadete eta gazte mailakoei

bideratuta dago eta adin horietarako distantziarik egokiena dela uste dute MugarraTTko antolatzaileek. "Euren distantzia aproposa supersprinta da eta horregaitik antolatzen dugu", adierazi du triatloi taldeko Serafin Bereziartuak. Proba biak Ezkurdin hasiko dira: 11:30ean

supersprinta eta 13:30ean sprinta. Guztira, 150 bat triatleta batzea itxaroten dute eta Bizkaiko txapelketa egongo da jokoan. Korrika Durangoko kaleetatik zehar ibiliko dira, urtero lez. Bizikletako ibilbidea, oster, berria da. Lehenengoz, Abadiñorantz joango dira. Aba-

diñon, Lasuen enpresaren ondotik, Eguzkitza auzorantza doan bidea hartuko dute, eta handik bueltatuko dira Durangora.

Arrazoi bigaitik aukeratu dute ibilbide hori. Alde batetik, ezin zutelako N-634 errepidera sartu. Egun berean Bilbao-Bilbao martxa zikloturista dago eta errepide nazionala erabiliko dute. Horregaitik, Trafiko Zuzendaritzatik ez diete baimenik eman errepide hori erabiltzeko. Beraz, ezinezkoa zen Goiuria eta Garairako ohiko joan-etorria egitea. Bigarren arrazoa honako hau da: 10 kilometroko itzuli zirkular baten bila zebiltzan. "Oso ibilbide polita dela uste dugu eta pozik gaude", adierazi du Bereziartuak, eta ikusleentzat "abantailak" dituela uste du; izan ere, lehen irteten eta helmugara heltzen bakarrik ikusi zitezkeen triatletak bizikleta gainean. Orain, igarotzen ere ikusiko dituzte, sprint modalitatekoek buelta bi eman behar dituzte eta.

Goizean zehar umeen lasterketak egingo dituzte: 10:00etan benjaminena, 10:15ean kimuena, eta 10:45ean haur kategoriakoena. Bakoitzak bere distantzia izango du. Izen-ematea aurretik egin daiteke btftriatloi@gmail.com helbidean, eta egunean bertan ere bai, 09:00etatik 09:45era bitartean.

Emakumeen boleibol klub berria sortzen dabilta Durangon, eta oraingoz herriko gazte askoren interesa piztu du



Boleibol entrenamendu bateko argazkia.

BOLEIBOLA • JOSEBA DERTEANO

Boleibola berpizten dabil Durangon. Neska gazte biren ekimenez, kadeteen taldea sortu dute, haur kategoriakoa bideratuta dago, eta, aurrera begira, harrobiko talde gehiago sortu gura dute. Gainera, prozesu honetan ezusteko bat eraman dute: itxaroten zuten baino eskari handiagoa izaten ari dira.

San Jose Jesuitak ikastetxeko ikasle bi dira proiektua martxan ipini dutenak: Irene Antxia eta Naroa Mendazona. Saskibaloian ahalegindu ziren, baina ez zituzten hautatu. Orduan, boleibol talde bat sortzea erabaki zuten. Baina, zergaitik hain kirol arrotza? "Nire osaba boleibol entrenatzailea da Haron, Errioxan, eta udan boleibolean jokatu izan dut han. Horregaitik aukeratu genuen kirol hau", azaldu du Antxiak.

Durangon kartelak ipintzea izan zen lehenengo pausoa. Biek kadete adina dute eta adin horretako taldea sortu gura zuten. 40 erantzun jaso zituzten. "Ez genuen horrelako harrerarik es-

pero, inondik inora ere ez", diote. Orintsu, 19 erantzun jaso dituzte haur kategoriako taldea sortzeko. Hurrengo pausoa kimu mailakoa sortzea izango da. Klubari buruz gehiago jakiteko, helbide elektroniko bat sortu dute: durangoboleifemeninoa@gmail.com.

Une honetan, kluba ofizialki sortzeko prozesuan dago. Klubaren izena Sapuherri izan dadin ahaleginduko dira, sasoi batean Durangon egon zen klubari erreferentzia eginez. Datorren denboralditik aurrera ligan estreinatu gura dute. Oraingoz, Maristak Ikastetxean entrenatzen dira, Jone Legarra, Ezti Unzueta eta Garazi Otaduy entrenatzaileekin aginduetara. Maiatzetik aurrera, hondartzako boleibol torneonetan jokatzeko asmoa dute.

15 bat urte joan dira Durangon Sapuherri taldea desagertu zenetik. Gero, 2014an Sapuherri-Kurutziaga taldea sortu zuten nesketan. Proiektu hark lau-bost urte iraun zuen. Oraingoa saiake-ra berria da.



Pilotari parte hartzaileak, babesleak, eta erakundeetako arduradunak martitzenean Trabakua Beheko jatetxean egindako aurkezpenean.

Biharko Izarrak-en emakumeen txapelketa antolatu dute lehenengoz

Miren Larrartek, Amaia Aldaik, Enara Gamindek eta Olatz Arrizabalagak parte hartuko dute

PILOTA • JOSEBA DERTEANO
Afizionatueta erreferente den Biharko Izarrak pilota txapelketa datorren astean hasiko da Mallabian, eta nobedade batez dator: emakumeen txapelketa antolatu dute lehenengoz. Lau pilotarik parte hartuko dute: Miren Larrartek, Amaia Aldaik, Enara Gamindek eta Olatz Arrizabalagak. Goi mailako pilotariak dira, gaur egun dauden onenatarikoak. Horren erakusgarri da honako datu hau: lau pilotarietatik hiruk, Arrizabalagak, Aldaik eta Gamindek, Master Laboral Kutxa Cup txapelketako

finala jokatu dute domeka honetan, Irunen. Lau t'erdian arituko dira, buruz buru. Lehenengo finalerdia maiatzaren 19an izango da, Larrarteren eta Arrizabalagaren artean; bigarrena maiatzaren 26an jokatu dute Gamindek eta Aldaik. Finala mutilen egun berean jokatu dute, baina data ez dago zehaztuta oraindino. Hurrengo urteetan, "oraindino hobia" den txapelketa antolatu gura dute emakumeetan, Malle pilota elkarteak Carlos Garcíaren esanetan. Pilotari gehiago batuko duen txapelketa

antolatzea da helburua. Olatz Arrizabalagak positiboki baloratu du antolatzaileek emandako urratsa. "Mutil afizionatueta erreferente diren txapelketetan nesken lehiaketa egotea garrantzitsua da Diario Vasco, Antiguo eta Zaldibarko Olazar txapelketetan gertatu den moduan", baloratu du. Mutiletan 16 pilotari daude, multzo bitan banatuta. Joko sistema betikoa da: bikotekideak txandatzeko joango dira partidu batetik bestera. Jardunaldiak egunetan izango dira, 21:15ean, maiatzaren 31n hasita.

Gimnastika erritmikoan umeen txapelketa ikusgai

Zapatuan kimu mailako eta haur kategoriako gimnastak arituko dira Landako kiroldegian, egun guztian zehar

GIMNASTIKA ERRITMIKOA • J.D.
Hile eta erdi geroago, gimnastika erritmikoa berriro ere protagonista izango da Landako kiroldegian. Otsailaren hasieran, benjamin eta kadete mailako gimnastak aritu ziren Bizkaiko txapelketaren barruan. Zapatu honetan, oster, kimu mailako eta haur kategoriako txanda izango da. Uztai taldeak antolatuta, adin horretako Bizkaiko taldeek erakustaldiak eskainiko

dituzte Durangon, 10:00etan hasita. **Olazarmendikoen lorpenak** Bestalde, Zaldibarko Olazarmendi klubeko Goizane Romanek eta Ane Antonek dominak irabazi dituzte eskolartekoan. Ane Fernández eta Malen Dueñas lehenengo eta hirugarren sailkatu dira, hurrenez hurren, Leioan, eta Olaia Onandia eta Eider Agirre Bizkaiko azpitxapeldun geratu dira.

Aitor Ajuria Euskal Herriko txapeldun mendiko eskian

Luz Ardidenen (Frantzia) lehiaturiko Altitoy Ternua proban binakako txapela irabazi du, Axier Alonsogaz batera

MENDIKO ESKIA • J.D.
Aitor Ajuria otxandiarra eta Axier Alonso oñatiarra Euskal Herriko mendi eskiko txapeldun geratu dira elkarregaz. Barages Luz Ardiden, Pic du Midi eta Tourmalet mendate mitikoetatik zehar, 3.05.06an osatu zuten ibilbidea joan zen asteburuan. Lehia estua izan zuten azkenean bigarren geratu ziren Jon Ander Aranburu eta Rafa Urkizugaz. Aitor Otxoak eta Lander Alvarezek osatu zuten podiuma.



Jokaldia

De Ronde Van Vlaanderen

Udaberria eta ziklismoa uztarri bereko idiak direla iruditzen zait. Txirrindularitza bete-betean bizitzeko unea. Egun bateko klasikoek distira emango diote urtaro ederrenari. Kale edo bale; ez dago bigarren aukerarik. Milano-San Remo, Amstel Gold Race, Fleche Wallone, Liege-Bastogne-Liege, Paris-Roubaix eta Ronde van Vlaanderen. Flandriarren egunik handiena da apirilko lehen domeka; ia urte osoa ematen dute hitzordu horren zain. Garagardo eta saltxitxa artean, Oudenaardera eramaten duten errepede bazterrak zalez mukuru izaten dira. Jai egun bat da eurentzat. 1913an sortu, eta lehen mundu gerran bakarrik geratu zen egin gabe. Bigarren mundu gerran, orde, Alemanian antolatu zuten klasikoa. 1977koa ekitaldi ospetsua izan zen. Elurpean Freddy Maertens, De



Alfons Arrio Monasterio
Kirol kazetaria

Udaberria eta ziklismoa uztarri bereko idiak dira. Txirrindularitza bete-betean

Flandriarren egunik handiena da apirilko lehen domeka; ia urte osoa ematen dute hitzorduaren zain

Vlaeminck eta Merckx izan ziren protagonistak. Lehen biak flandriarrak, eta hirugarrena jaiotzez flandriarra baina frantziartutakoa. Merckxek nahiz eta flandriera ama hizkuntza izan, frantsesaren aldeko hautua egin zuen. Hori ez zioten barkatu eta ondorioz, ziklista askok ezin zuten ikusi. Maertensek gorroto zuen. Urte horretako klasikoan,

Merckx buruan zen eta atzetik Maertens eta De Vlaeminck zihoazen. Freddy bizikleta aldatu eta epaileek kanporatu egin zuten; baina lasterketan jarrai zezakeela esan zioten. De Vlaeminck hori entzun eta aitaren batean proposamena egin zion: gogor tira zezala, bestela hainbeste gorrotatzen zuen ziklistak irabaziko zuela. Trukean, dirua emango ziola. Lan izugarria eginda, Koopenbergen gora harrapatu zuten kanibala. Ezinean gelditu zen Merckx. Maertensek otzan lan egin eta De Vlaeminckek ez zuen arazorik izan bere bosgarren monumentua irabazteko. Zaleak sutan ziren iruzurra egon zelakoan; epaileek Maertensi berriz onartuta zegoela esan zioten. Bere onetik aterata mehatxuka hasi zen eta atzera egin zuten epaileek. Oudenaardeko museoan, Freddy Maertensen izena ageri da 1977ko Flandriako garaile moral bezala.

Durangaldeko berbalagunen XIII. Kultur Lehiaketa

1. Zenbat Berbalagun talde daude aurtan Durangaldean?

- a) 18
- b) 16
- c) 21

2. Zenbat urte bete ditu Anboto komunikabideak?

- a) 20
- b) 25
- c) 10

3. Zein da hiru mendi hauen artean altuena?

- a) Oiz
- b) Mugarra
- c) Leungane

4. "Askatutako korapiloak" kantuekin diskoa aurkeztu berri duen taldea:

- a) Zeker
- b) Estutu
- c) Mocker's

5. Nola amaitzen dira atsotitz hauek?
Kexu denari,

- a) oro nardagarri
- b) etsaiak sarri
- c) konponbidea opari.

6. *Beheko suak,*

- a) aurea berotu eta atzea hoztu
- b) beroa gorantz
- c) kerik ez

7. *Astoak mandoari,*

- a) alfer ibili hadi
- b) belarri luze
- c) arrantzarik ez

8. Durangaldeko herri hauen artean, zeinek du azalera handiena?

- a) Durango
- b) Zornotza
- c) Elorrio

9. Korrikako abesti hauen artean, zein da zaharrena?

- a) "Ongi etorri lagun", Betagarri
- b) "1 eta 1", Joxe Ripiau
- c) "Euskal Herria korrika", Gozategi

10. Zein da aurtengo 22. korrikaren leloa?

- a) Hitz eta pitz
- b) Hitz egin
- c) Hitzekin

11. Durangaldeko hitanoan jarduteko Hiketalagun egitasmoak zenbat urte ditu?

- a) Sortu berria da
- b) Mende bat baino gehiago
- c) Laster 10. urteurrena

12. Berbalagun izatearen abantailak bat da:

- a) Deskontuak Argia, Berria, Gaztezulo eta Aizu! Aldizkarietan
- b) Deskontuak Euskotrenen eta Pesan
- c) Kafe gutxiago edatea

13. Iurretako Abadetxean dagoen irati librea:

- a) Hala Bedi
- b) Laixiar irratia
- c) Alluitz irratia

14. Arantza Santestebanen filma:

- a) "918 gau"
- b) "Urpean lurra"
- c) "Ikuspuntu"

15. Jangitz Larrañaga berriztarrak talde honetan batera jotzen du:

- a) Vulk
- b) Arrotzak
- c) Lukiek

16. Pinpilinpussies taldea zenbat lagunek osatzen dute?

- a) 4
- b) 2
- c) Ez da existitzen



IZEN-ABIZENAK:

HERRIA:

TELEFONOA:

Erantzun zuzenak markatu eta entregatu Durangaldeko edozein euskaltegitan, apirilaren 15a baino lehen.



SARIA: 6 kultur saski

Euskaraz praktikatu nahi?

Hainbat aukera ditugu zuretzat:



MINTZATALDEAK



MENDI LAGUN



FAMILIA EKINTZAK



IRAKURZALE KLUBA



MINTZO DROMOAK

EMAN IZENA

Berba lagun 639 400 786

praktikatu.eus/blog/durangaldea
durangaldea@aeek.eus



Sustatzaileak

Babesleak



Durangaldeko Mankomunitatea
Mancomunidad de Durangaldea



praktikatu



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak	
BARIKUA, 25 · 09:00-09:00	MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
SAGASTIZABAL ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO	09:00-22:00
GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	ASTELEHENA, 28 · 09:00-09:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	GAZTELU mendi J.A. Abasolo 2 - Durango
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 26 · 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
MUGICA Andra Maria 9 - Durango	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
09:00-13:30	MARTITZENA, 29 · 09:00-09:00
DE DIEGO INTXAURRONDO 22. - DURANGO	IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA
SARRIA Sasikoa 17, Durango	MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO	09:00-22:00
GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
BAZAN Diaz Uribarri 5 - Durango	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO	EGUAZTENA, 30 09:00-09:00
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO	SARRIA SASIKOA 17, DURANGO
FARMAZIA MATIENA TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO	MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	09:00-22:00
GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZARUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-14:00	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	EGUENA, 31 · 09:00-09:00
09:00-22:00	UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
DOMEKA, 27 · 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA



Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**
Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia



Zorionak, **Ainho!** Udabarrizax batera datorren lora politte zara zu! Gora gure crossfiteko, parrandako eta liburutegiko erregina! Ilargiraino eta buelta maite zaittugu! Zure kuadrilla-ko tiabuenak.



Zorionak, **Aiur!** Martxoaren 21ean 9 urte egin ebazan. Egun polite pasau gendun, danok elkarrekin! Muxu handi bat etxekuen partez.



Zorionak, hirukote, familia osoaren partez. Segi beti bezain alai. Maite zaituztegu. Muxutxuak.



Zorixonak, **Irati!** 11 urte jada! Muxu haundi bat familia guztiaren partez!



Zorionak, **Naia** Rementeria! 12 urte egiten dauz eta super harro gauz berataz. Asko gustatzen jakoz animalixek eta oso jatorra da. Asko maite zaitugu! Musu potolo bat familia guztian partez, batez be, Jonen partez.



Zorionak, **Gaizka.** Asko maite zaitugu etxeko guztiok. Urte askotan jarraitu deixule hain jator. Besarkada erraldoi bat. Gora Arratiko zekorra!

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 19° / 9° ☁️

DOMEKA 🌡️ 20° / 8° ☀️

ASTELEHENA 🌡️ 19° / 11° ☁️

MARTITZENA 🌡️ 17° / 11° ☁️

EGUAZTENA 🌡️ 14° / 9° ☁️

EGUENA 🌡️ 12° / 7° ☁️



Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO
PATOLOGIAK
NEURRIRA
EGINDAKO
PLANTILLAK
OINETAKO BESTE
HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

“Benetako gastronomia japoniarra oso ezezaguna da, mito asko dago”

Xabier Sanchezek sake dastatzea zuzendu du Ardo Saltsan jaialdiaren eskutik, Olajauregin



Xabier Sanchez Duro
Japón Gourmet
SESTAO | 1996

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Xabier Sánchez 17 urtegaz joan zen lehenengoz Japoniara. Lau hilabete egin zituen hango sukaldaritza, hizkuntza eta kultura ezagutzen. Hemen Japón Gourmet proiektua sortu du, Jon Ander Musatadigaz. Japoniako produktuak inportatzen dituzte, hango tokiko komertzioa bultzatuta. Era berean, proiektuaren helburu dibulgatzailea nabarmendu du Durangon bizi den sukaldariak. Japoniako gobernuarentzat aholkularitza lana ere egiten dute.

Nondik dator Japoniako kulturagaz eta gastronomiagaz duzun lotura estua? Ustekabean sorturiko kontu da. 14 urtegaz japoniera ikasten hasi

nintzen, eta irakasleak jatekoa ere ekartzen zigun lantzean behin. Umami kontzeptua ezagutu nuen orduan, dastamen-papila guztietan eta ahosabai osoan eragiten duen bosgarren zaporea; euskaratuta, zaporetsua. Bada, konturatu nintzen umamia posible zela kimikorik erabili barik, japoniarrek elikagai batean umamia zerk sortzen duen bilatzen dutela, hori zelan indartu aztertzen dutela, ahosabai eragiteko. Deskubritu nuen Japoniako gastronomia estimulatzailea zela zentzu guztietan, eta oso hartu-eman estua zuela euskal gastronomiagaz.

Antzekotasun asko dute euskal gastronomiak eta japoniarrak?

Produktuan eta zaporean oinarritzen dira biak. Euskal gastronomian produktua da platerako erregea, eta japoniarrean ere bai.

“Sakea ardoa lez disfrutatzen den garagardoa da, ez likorea”

Gainera, sasoikoa izatea gustatzen zaigu, Japonian lez. Hemengo moduan, Japonian itsasoagaz eta mendiagaz loturiko kultura gastronomiko oso uztartua dute, eta

han ere eskualde edo lurralde bakoitzak bere espezialitatea du. Oso kultura homogenea da japoniarra, baina oso bereizgarria bere eskualdeetan. Etorri diren japoniarrek esan digute ez dutela hango gastronomiaren falta igarri; berdin Japoniara eraman ditugun euskaldunek. Euskaldunoi asko gustatzen zaigu gastronomia japoniarra.

“Deskubritu nuen Japoniako sukaldaritza estimulagarria zela zentzu guztietan”

Hala ere, ezezaguna da guretzat.

Benetako gastronomia japoniarra bai, oso ezezaguna da. Mito asko dugu barneratuta. Esaterako, soja saltsa deitzen diogun hori gatza da, eta ez saltsa. Bizigarri modura erabiltzen da. Bestalde, argitu behar da sushiaren osagai nagusia *sharia* dela, arroz mingotsa, eta hori edozer gauzagaz lagundu daitekeela: olagarro egosiagaz, txibi erreagaz... arrautza frijitudunak ere badaude.

Kultura japoniarragaz loturiko mitoak ere baditugu?

Bai. Japoniarra oso zorrotza dela esaten da. Halakoa da, serioa, profesionala, adeitsua, baina lana amaitu eta lehenengo garagardoa hartzen duen arte, lankide zein lagunekin. Oso antzekoak gara. Hala ere, lan kultura oso zorrotza dute: nagusia mahaitik jaiki arte ordu estrak egiteko ohitura handia dute. Gainera, badago halako matxismo inplizitu bat.

Sake dastatzea egin duzu Ardo Saltsan jaialdian. Harrera ona izan du?

Oso ona. Hona hemen beste mito bat: sakea ardoaren moduan disfrutatzen den garagardoa da, ez likorea. Arroz legamiatutik sortzen da eta ardo batek izan ditzakeen dastatze ñabardura guztiak ditu. Sake mota asko dago, ardoak beste.

Euskal gastronomia ala japoniarra?

Hobe biak nahastuta!

Inoiz ezetz esango ez diozun platera?

'Asadurilla', amamak egiten zigun Sestaon. Eta Jakytoria, Japoniara noan bakoitzean jan behar dut.

Lauhortza

Markel Onaindia
Txabarri
Kazetaria



Ihesa

Hotzikara bat sentitu nuen Jon Irazabal historialariak gure amama Mirenen harira berba egin zidanean. Duela aste gutxira arte entzun barik neukan istorio bat da, iragana irauli didana.

Durangoko bonbardaketa kupidagabearen ostean, amamak eta etxekoek ihes egitea erabaki zuten, kolpisten beldurrez. Maletak hartuta, askoren antzera mendebalderantz jo eta Sopuertan hartu zuten babes. Gerora Iurretara bueltatu ahal izan zuten, baina ezusteko triste bat zuten zain: Filomena ahizpa hilda topatu zuten. Madrilén zerbitzari zebilena, zoritxarrez etxera etorria zen, familiaren ihesaldiaz enteratu barik. Antza denez, herriko frankista ezagun batek txibatazioa jo eta bertan hil zuten.

Amaren eta izekoren haritik tiratzen, Filomenaren istorioa josten joan gara. Argazki zuri-beltzak ikusi ditugu egongelan, *Guernica* guri begira dugula. Komentatu dutenez, bertsio ofizialak dio eskaileretatik jausi zela; gure amamak ez zuen sinistu. Beste hiru neba kartzelan egon zirela ere kontatu dute. Aitak albotik gehitu du Mallabiko aitite ere zigortu zutela, frentean ibili eta gero.

Amamak bilobei ez zigun gerrari buruzko ezer kontatu. Baina guk ere ez genion ezer galdetu, eta orain damu naiz. Lehengusuarekin eta arrebarekin berbaz, begiak umeldu zaizkigu amamak sufritu behar izan zuenaz pentsatzean. Zauri bat zabaldu zaigu errailetan.

85 urte beteko dira loratu bako udaberri hartatik. Orain, egunkarietan maletak hartuta ikusi dut jendea, ihesean, begirada galduarekin. Eta hotzikara bat sentitu dut berriro ere.

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com